

Juan Garmendia Larrañaga

Jentilak, sorginak eta beste: Euskal pentsamendu magikoa

Nestor Basterretxeak irudiztatua



25

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



1994. Jentilak, sorginak eta beste. Euskal pentsamendu magikoa, II / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Elkar, 1994

1995. Mitos y leyendas de los vascos: apariciones, brujas y gentiles / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Haranburu Editor, 1995. – Contiene: I. El pensamiento mágico vasco II. Brujas y gentiles en un mundo esotérico

1998. Mitos y leyendas de los vascos: apariciones, brujas y gentiles = Jentilak, sorginak eta beste. Euskal pentsamendu magikoa, II / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Mitos. Etnografía.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 5). – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano, euskera

2007

Jentilak, sorginak eta beste: Euskal pentsamendu magikoa / Juan Garmendia Larrañaga ; hitzaurrea Xabier Mendiguren Bereziartu ; marrazkiak Nestor Basterretxea. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 77 p. : ir. ; 21 cm. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 25). – ISBN: 978-84-8419-089-9. – Santiago Aizarnari eskainitako edizioa.

Azala eta marrazkiak

Nestor Basterretxea



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Jentilak, sorginak eta beste: Euskal pentsamendu magikoa

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak

Hitzaurrea. Xabier Mendiguren Bereziartu 7

Jentilak, sorginak eta beste

Sorginak	11
Sorginak, oilo baten tankeran, gazte bat gaixotu	11
Sorginak zubia egitea ezin lortu	11
Sorginak, neska gaztea zaldi zuri baten gainean eta konjuru ezak	13
Sorgina, bideko laguntzaile erakaitza	15
Sorgina astoaren tankeran	15
Sorgin lapurra harrapatu zuten	16
Sorgina eta bere senarra	16
Sorgin andrea bere gizonari zaldi-tankeran azaldu	16
Esker oneko sorgina	17
Ama-alaba sorginak, morroia eta akelarrea	17
Sorgina eta katua	18
Sorginak katu itxuran. Sorginak ez dira zartadak pareka emanez jipoitu behar, zenbaki bakoitiz baizik	18
Sorgin ardo edaleak	18
Sorginak etxean ez sartzeko	19
Sorgin espartzingileak	19
Sorgina haizearen tankeran	19

Orria

Sorginari aurpegia erre	20
Sorgina eta ikazkina	20
Gizon katu bat eta liburua	20
Andrea sorgin bihurtu	22
Auzoko sorgina eta gizon irulea	22
Sorginak ume jaio berrien harrapatzaile	22
Mutikoa, sorgina eta errotaria	24
Sorginekin harremanak	24
Sorgina praile jantzita ibili	25
Sorgin baten mehatxua	25
Bi sorgin Bedaioko Edar Iturrin	26
Sorginkeriak mendian	26
Sorgina ardi-itxuran	27
Andre sorgin bati bere sorgin-dohaina atera katutankeran ...	27
Lotan zegoen andre bati sorginak izterrean hozka	27
Martin Motelaren larritasunak sorgin-etxe batean	29
Astoa eta sorginak	30
Ibili ezinean aurkitzen zen sorgina	30
Sorginak txerri-itxuran	30
Sorgina katu beltz bihurtu	32
Sorgina Frantziako muga pasatzeko laguntzaile	32
Gizona arbolaren gainean	32
Ezkurrako Tontorgorri sorgina	33
Artzaina eta sorginak	33
Tontorgorri sorginak gurdia behar bezala jartzen laguntzen du	34
Tontorgorri sorgina nola hil	34
Gurutzeak sorginak uxatzen ditu	34
Katu sorgina erre	35
Sorginak –haietako bi idi gorri-tankeran– eta Bedaioko eliza .	35
Sorgin lapurrari zigorra	35


Jentilak	37
Jentilek mugarrria behar ez bezala kendu zuen bati aholkua eman	37
Jentil baten jokaera	37
Jentilen bizimoduaz ohar batzuk	38
Jentil gizajaleak	38
Jentil ona eta indartsua	38
Jentilak lainoarekin adierazten du Kristoren jaiotza	39
Jentil zahar batek zakur handi eta indartsua borrokan akabtzen du	39
Jentila eta lehoia	41
Jentil balankariak	41
Ormaiztegiko zubi bat eta jentilak	42
Jentilak beren buruak defendatzen	42
Jentil indartsua	42
Jentil indartsua	44
Ama- seme jentilak eta beraien morroiak (seme indartsua) ..	44
Ezkurrako jentilak	44
Martin-Txiki jentilekin harremanetan	45
Herriko mutil batek neska jentil batekin haurra izan	46
Ezkurrako jentil eta sorginak nola bidali zituzten	46
Eta beste agerpenak	49
Gau batean hazten zen astoa	49
Arima erratua elizako sepultura gainean argizaria jartzeko eskatuz	49
Arima erratua ur bedeinkatua ematen duen esku bezala agertu	51
Deia egiten duen esku batek arima erratu baten izatea adierazten du	51
Andre bitxi baten jokaera ulergaitza	51
Estrella ortzadarra	52
San Migel aingerua lapurtu	52
Biraoa	52

Orria

Biraoa	54
Gurutzea eta parte txarreko akerra	54
Mateo Txistu	54
Hildako aitona bat azaldu ametsetan meza eske	55
Agoteak eta mairuak, Ezkurran	55
Usteldu gabeko hildakoa meza baten eskean agertu	55
Baserritarra eta Jainkoa	56
Mugarria behar den lekutik ateratzeagatik	56
Mugarria bere onerako aldatzeagatik	56
Uitziko Santa Engrazi ermita dela eta	57
Murumendiko Dama eguraldi-aldaketaren adierazle	59
Lukas arotza eta zubia	61
Gauetz ez zaizkio eman behar hiru bira elizari	61
Gauetz ez zaizkio eman behar hiru bira elizari	62
Artzaintxoaren egunak	62
Hiltzailea ezagutzeko	63
Zerura joateko meza baten beharrean aurkitzen dena	63
Arima erratua	63
Gaueko oilarraren kukurrukua etxeke baten arima erratuaren adierazle	63
Ostiral Santu egunean arkumea jateagatik	64
Korpus Kristi egunean ez da ardi-mozketarik egin behar	64
Zigorrari alde egiteko	64
Arima bat zerbaiten beharrean aurkitzen zen	65
Amezketan Ama Birjina azaldu ote zen	65
Meza-beharrean zegoen difuntua	67
San Migel mendiko herensugea, bere bizimodua eta heriotza- ren aurreko gorabeherak	67
Sugarra mugimenduan hildakoaren etxera	68
Zezen gorriak leizezulo batean	68
Zezen gorriak basoan	68
Parte txarreko zakurra	70

Orria

Beste mundukoa meza baten eske	71
Ostiral Santu egunean arkumea jateagatik	71
Beste mundukoa (etsaiak) txakur zuri tankeran	72
Jesukristo etxerik etxe	72
Lamia on eta langileak	73
Sugarra, Balerdi menditik Lizartzako leizera	73
Sanson eta Iruñarri harkaitza	73
Sansonen hanka-zuloak	74
Mateo Txistu ametsetan ikusi	74
Goroldioa eta etxeko eserlekuek bakarrik ez zekiten hitz egiten ..	74
Beste mundukoa meza ateratzeko eskatzen	76
Beste mundukoa eta mutil koskorra	76
Ardiek hitz egiten zuten garaia	76
Biga lapurtua eta aztia	77



Hitzaurrea

Duela bi urte agertu zen *Euskal pentsamendu majikoa*¹ izeneko liburua eta orain bigarren parteak ikusten du argia. Juan Garmendia Larrañaga, bere egile eta nire adiskide denak sarrera bat idazteko eskatu didanean, pozik sentitu naiz alde batetik, halako konfidantza nigan jarri eta ohorea egiten didalako, baina beldurra ere izan dut, bestetik, nik neuk gehiegi ezagutzen ez dudan alor bati buruz zerbait esatera beharturik aurkitzen naizelako.

Nolanahi ere, pozik hartu dut Tolosako etnologoak eskatutako egitekoa eta halabeharrez egun hauetan, eta beste zeregin batzuk direla medio, neuk uste izan gabe sortu zait sarrera honetarako gaia eskainiko didan aukera. Dom Augustin Calmet-en *Dissertation sur les revenans en corps, les excommuniés, les oupires ou vampires, brucolaques, etc.*, obra eskuetaratu zait. Zehatzago esateko 1746an argitaratu zen bere *Traité sur les apparitions des esprits et sur les vampires ou les revenans de Hongrie, de Moravie, 7 c.*, vampirismoari erabat eskainitako liburua eta Europako literatura fantastikoari hasiera eman ziona².

1672an Mesnil-la-Horgnen jaio eta 1672an Parisen hil zen Sénonesco abate beneditar honen obraren eta Juan Garmendia Larrañagak bere berrie-maileengandik jasotako kontakizun-bilduma honen artean kidetasun ugari ageri dira, eta beste behin, Caro Barojak dioen hura egiaztatzen da: “Mitologian ez da ezer bata bestearen erabat kidekorik, baina ia dena elkarren antzeko da”³.

Mende, nazio, herrialde bakoitzak bere irudipen, gaixotasun, moda eta joerak dituela esatetik hasten da Calmet, eta sarritan garai batean miresga-

1. GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: *Euskal pentsamendu majikoa*. Saiakera etnologikoa, Baroja, 1990, Donostia. 118 orrialde eta aurkibideaz horniturik datorren liburua. Nestor Basterretxearen marrazkiez ederturik dago.

2. Arestian agertu da liburu honen gaztelaniazko itzulpena: DOM AUGUSTIN CALMET: *Tra-tado sobre los vampiros*, Mondadori, 1991, Madrid. Lorenzo Martín del Burgo itzultzaileak dioenez obra honek 1751n ikusi zuen argia eta Debure Nagusiak eman zuen argitara Parisen bi bolumenetan. Portadan ageri zenez edizio berrikusi, zuzendu eta gehitua zen eta izatez laugarrena. Aurretik 1746, 1749 eta 1750ean agertu zen Paris, Suitza eta Alemanian.

3. Loc. cit. 9 or.

rria gertatu dena, deitoragarri eta barregarri gertatzen dela beste garai batean. Beneditarrek liburua idazteko asmoa hartu zuenean Hungaria, Moravia, Silesia eta Polonia aldetik zetozen berri bitxiak zeuden sapan: zenbait hilabetez hilik zeuden pertsonak agertzen zirela, jendea eta animaliak gaizki erabiltzen zituztela, odola zurgatzen zutela, pertsonak gaixotu eta heriotzara eramaten zituztela, eta horrelakoak barra-barra zabaldu ziren.

Calmet abatearen ustez, antzinateak ez omen zuen horrelakorik ezagutu eta hebertar, egiptoar, greko eta erromatarren istorioak arakatu arren ez omen da antzekorik ageri. Onartzen du, nahiz eta oso bakan gertatu, hilobian eta hildakotzat emandako zenbait berriro gizarteratze-kasuren batzuk ageri direla, heriotza eragiteko adinako indarra zuen magia eta hildakoen arimekin hitz egiteko adinako ahalmenetan ere sinesten zutela, sorginek heldu eta haurrei odola zurgatzen zietela eta abar, baina bere garaian lehenago aipaturiko herrialdeetan gertatzen ari zen bezalako "izurriterik" inoiz ez zela eza-gutu izan aitortzen du historialari frantsesak.

Gogoan dut, bestalde, gure aitak (urte mordoska batean herriko lurperatzailea izan zelarik, hildakoez biziak baino kezka gutxiago ematen ziotela aitortu ohi zuen) nola esan ohi zuen pistolak ugaltzen hastean hasi zirela sorgin eta agerpenei buruzko istorioak.

Baina gatozen harira, goian aipaturiko obraren lehen partean Dom Calmetek "Aingeru, demonio eta defuntu-arimen agerpenei buruzko tratatu bat" ere idatzi zuen eta bigarreanean darabiltzan kasuei begiratu bat emanik, vanpiro edo odola ateratzen duten hildako eta berretorrien kasuak, zenbait denboraz hilik egon direnen itzulerak, hilobietan txerriek bezala mastekatzen dutenen kasuak, eskomikatuen itzulerak, heriotza eragiteko jentilek egindako konju-ruak eta abar aipatzen ditu.

Juan Garmendia Larrañagak bildutakoei begiratu bat eman eta Calmetek aipatuen parean jartzen baditugu, antzekotasunak nabariak dira: hildakoen agerpenak, zigorrez usteltzen ez zena, bizirik agertu diren fantasmak, hots edo soinu berezien entzupenak, hozka egiten duten sorginak, heriotza eta kalteen eragileak eta abar euskal berriemaileengandik jasotako istorioetan ugari daude. Baina aldeak ere nabarmenak dira: Euskal Herrian bildutakoen artean sorgin eta jentilei buruzkoak dira nagusi, arima erratu, hildako eta aztikeriazko kasuak ere ugari badaude ere.

Zigorren sailean Calmetek lurrak kanpora botatuko eskomikatuak, hamarrenak ez ordaintzeagatik elizatik kanporatutakoak, eta abar aipatzen ditu. Euskal Herrian bildutakoetan ere badira antzekoak. Dena den, konparaketa egokiago baterako Calmeten lehen liburua arretaz azertu beharko litzateke eta agian orduan bakarrik izan genezake ikuspegi orokor egokia eta XVIII. mendean Europan gai hauen inguruan nagusi ziren interesguneak nola banatzen eta sailkatzen ziren.

Gauza batean alde nabarmena ikusten dut Calmet eta Juan Garmendia Larrañagaren lanak alderatzean: lehenak berak aitortzen duenez inoiz ez omen zuen agerpenen gaia sakon aztertzeke asmorik, halabeharrez eta bide-nabar aipatzen omen ditu, berak Hungariako vanpiro izenekoak aztertzea omen zuen helburu nagusia. Halere, agi danez jendeak garrantzi handiagoa

eman zion agerpenen, hau da, aingeru, demonio eta hildakoen arime buruzko istorien parte “klasikoa” dei genezakeenari vanpiroenari baino. Gainera, Calmetek helburu apologetiko filosofiko edo erlijioso batez burutzen du lana: kontakizun horien egia edo gezurra agerian jartzeko.

Juan Garmendia Larrañaga etnologiaren alorrean dabil eta bere berriemaileen kontakizunak bere horretan zehazki eskaintzera mugatzen da, berorien izena, adina, jaioterria eta etxearen xehetasunak ere emanez. Kontakizun guztiek ahoz jasotakoak izatearen balioa dute eta “protagonisten” hurbiltasuna nabarmena da kasu gehienetan.

Esku artean darabilgun gaiak askotarako ematen du eta alderdi askotatik azter daiteke, baina nik neuk Calmeten liburua dela eta orain arte esandakoak gorago aipatu dudan Caro Barojaren aipua nolabait hedatzeko eta iruzkintzeko baizik ez ditut esan.

Bestalde, Europako literaturari dagokionez A. Calmeten obra eragile eta arnas-emaile gertatu da eta seguraski “vanpirologiako” lan hura gabe ez ziratekeen beste obra eta artegai ugari sortuko, besteak beste, Sheridan Le Fanuren Carmilla, Stokerren Drakula, ezta Murnau eta Herzogen Nosferatu eta Dreyerren Vampyr ere.

Juan Garmendia Larrañagaren lan honek eta beste batzuek –baita beste zenbait etnologok gure artean bildutakoek ere– euskal kulturaren lanean gabiltzan alor desberdinetako langileok irakurriak izatea merezi dute gure iraganaren eta euskal nortasunaren berezitasunak sentitzeko ezinbestekoak diren heinean, eta beste herrialde eta garai batzuetan gertatu denez, gure artean ere gaur egun ere ernalmen handiko gerta daitezke zientzia eta artearen eremu askotan.

Xabier Mendiguren Bereziartu

Sorginak

SORGINAK, OILO BATEN TANKERAN, GAZTE BAT GAIXOTU

Nire berriemaileak entzuna dio bere amona Klara Damasari, Gabiria herriko Oñatibia baserrian jaioa zenari, nola gazte bat oheratzen zen oilo lumekin egindako bururdi baten gainean. Baina egunetik egunera, gaztea pisua galtzen zihoan eta bere itxura ere gaixo-tankera hartzen.

Gauzak honela, Olaberriko eliza nagusira joan zen eta hemen erretoreak Ebanjelioak atera zituen, honelako eta antzeko gertakizunetako ohiturari jarraituz.

Eliz arau hau bete ondoren eta apaizak gaztearen itxura kaskarra ikusirik, galdetu zion zeren gainean lo egiten zuen. Adierazitako bururdi baten gainean erantzutean, apaizak jakinarazi zion bururdi barnean hegazti bat aurkitzen zela, bere gaitzaren eragilea, eta hau desagertzeko bururdia Intxaurtxo izeneko bidegurutzera eraman eta hemen erre egin behar zuela.

Auzoko laguntzarekin, gazteak egin zuen apaizaren esana; baina bururdiaren erdian oilo bat aurkitu zuen, makilatu ondoren erre egin zuen hegaztia. Oilo hau sorgina zen. Ordu ezkerero, gazteak osasuna bereganatu zuen¹.

SORGINAK ZUBIA EGITEA EZIN LORTU

(Lurralde berean tinkatutako beste ipuin baten aldaketa bat da).

Ipuin honek zubia ezagutzen ez zeneko denboretara garamatza.

Amezketako Loiola baserrian jaiotako nire berriemaileak dioenez, erreka bat alde alde igartzeko bi soka edo burdin-hari erabiltzen zituzten. Bat eskuz heltzeko eta bestea hanken euskarri.

1. Gabirian, Nikolas Alustiza Gabiria, 64 urte. *Ostatua* etxea. 1990eko apirilak 30.



Hau honela, Andoain hiriaren auzoa den Sorabillan zubi baten nahia agertu zuten eta hau sorginek jakinik, langintza hartan arduza izango zuen nekazari-igeltseroarekin harremanetan berehala jarri ziren. Sorginek gizon honi proposatu zioten zubia berek egingo zutelara, oilarraren kukurrukua entzun baino lehen, igeltseroaren etxean aurrena jaioko zenaren truke.

Igeltseroak ontzat hartu zuen proposamen hau, behia umea egiteko zeukala pentsatuz: *Txekorra jaioko duk eta txekor baten gorabeheragatik ez zaidak ajola handirik*. Baina berehala ohartu zen andrea haurdun zeukala eta zer gertatzen zitzaion esanez apaizarengana joan zen. Honek, larrituta zegoen gizona entzun ondoren, pertz bat urez bete eta ur honetan oilarra sartzeko aholkatu zion.

Igeltseroak kasu egin zion apaizari eta oilarrak uretatik atera orduko kukurruko egiteari ekin zion. Kukurruku hau entzutean, sorginek bere lana utzi eta korrika eta presaka alde egin zuten, zubia egitea lortu gabe. Zubia harri baten faltan gelditu zen.

Baina sorginak beren zarrapastran ez ziren isilik ezkutatu, baizik eta honela deiaraz egin zuten: *Ez garela eta bagarela; baina hamalau mila bagaituk. Labaiendik harria, eskuz esku*.

Nire berriemaileak ikusi zuen falta zen harria jartzeko zuloa, sorginek harriarentzat prestatuta zeukaten zuloa. Denboran zehar, harri hura zementuz tinkatu arren, behin eta berriz lurrera erortzen zen².

SORGINAK, NESKA GAZTEA ZALDI ZURI BATEN GAINEAN ETA KONJURU EZAK


Amezketako Iraregi baserriko etxeoandrea bere alabarekin eztabaidan ari zen, oinez Tolosarantz abiatzera zihoala, eta andre hura honela hitz eginez agurtu zen: *Inpernuko etsaiak eramango ahal hau zaldi zuri baten gainean*.

Andrea etxera itzuli zenean hara non ikusten duen bere alaba sorginek daramatela zaldi txuri baten gainean. Gero, neska gazteak Txindoki izenarekin arrunt ezaguna den mendiko Mari Zulo leizearen sarreran bere burua azaltzen zuen.

Hau honela ikusirik, ama apaizarengana joan zen zer gertatzen zitzaion adieraziz eta apaiza zulora joan zen honelako kasuetan gomendatzen den konjuroa egiteko asmoz; baina alferrik, araoa egiteko ez baitzegoen apaiza behar den bezala prestatua. Berehala, neska gaztea Mari Zulo leizearen barnean ezkutatu zen³.

2. Tolosan, Ignazio Ulazia Artano, 77 urte. Amezketako *Loiola* baserrian jaioa eta gaur egun Ibarako San Ignazio auzoan bizi dena. 1991ko apirilak 3.

3. Tolosan, Ignazio Ulazia Artano, 77 urte. Amezketako *Loiola* baserrian jaioa eta gaur egun Ibarako San Ignazio auzoan bizi dena. 1991ko apirilak 3.



SORGINA, BIDEKO LAGUNTZAILE ERAKAITZA

Nire berriemailearen aita Larraulgo baserri batean morroi aurkitzen zela, nagusiak auzoko baserri batera joateko esan zion, hango gizona idi parearekin goldean laguntzeko libre ote zegoen galdetuz.

Morroiren nagusiak bazekien baserri hartan bizilekua zuen amona sorgina zela eta bere mutilari adierazi zion amona hari nola zegoen begiratzeko.

Morroia zakur handi batekin joan zen nagusiaren agindua betetzera eta baita amona su bazterrean nola zegoen eserita ikusi ere, geldi-geldi, hitzik egin gabe.

Bere eginkizuna bete ondoren, etxerantz bere zakurrarekin zihoala, hara non sortzen den berebiziko zalaparta, argi misterioitsuak alde batetik bestera mugituz eta benetako haize zakarra. Morroia benetan beldurtuta geratu zen eta zakurra, zaunkarik egin gabe, isil-isilik, hura ere oso beldurtuta.

Etxera heldu orduko, argiak itzali eta haizea ezkutatu egin zen. Dena baretu eta normal jarri zen.

Amona, sorgin bihurtuta, sorgintzan, zalaparta eta egoera harrigarriak sortuz, etxera bidean laguntzaile higuigarria izan zuten morroiak eta zakurrak. Auzoko amona sorginaren ekintza ezagutu eta bizitzeko aukera izan zuten⁴.

SORGINA ASTOAREN TANKERAN

Amezketako Ezkorborro baserriko mutil bat Bedaiora gauez zihoan bere andregaiarengana, makila eskuan zuela.

Berak pasa behar zuen barruti batean, kontrario baten astoa larrean aurkitu zuen. Hau mutilaren pozgarri izan zen. *Banuen gogoa asto hau harrapatzeko* pentsatuz eta aldi berean astoa bizkarrean makilatzen hasi zen. Astoaren bizkarra pitzatu zen baina berehala lehenago bezala jarri, jipoirik hartu ez balu bezala. Honela, behin eta berriz, erreka batera iritsi ziren eta erreka hartan sorginek lixiba jotzen zuten eta hauetako batek honela hots egin zion mutilari: *Maurizio, hator hona, bihurritzeko heldu maindire honi.*

Mutilak heldu zion maindireari eta hau berehala ote bihurtu zen. Hau honela gertaturik, gazteak eskuetan mina hartu zuen eta deiadarka esan zuen: *Ots! Hau ez duk maindirea, hau otea duk.* Eta sorginak erantzun: *Ez garela baina bagarela, ez garela baina bagarela...*, eta honela esanez ezkutatu ziren, beraien artean asto tankerako hura ere han zela, mutila esku urratu eta bustiekin geratuz⁵.

4. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 1.

5. Amezketan, Jose Urtaza Zangitu, 66 urte. *Etxetxo* baserria. 1991ko maiatzak 1.

SORGIN LAPURRA HARRAPATU ZUTEN

Baserri batean txerria hil zuten eta puskatu ondoren, odolkiak, lukainkak eta abar falta izaten zirela konturatzen ziren.

Etxeko ate eta leiho guztiak ixten zituzten baina alferrik, lapurrik ezin harrapatu.

Baserritar batek esan zien lapurra tximinitik sartzen zitzairela, sorgin bat izango zela eta tximini parean ontzi handi batean olioak irakiten jartzeko.

Hurrengo goizean baserriko sendia jaiki zenean, aldameneko amona harrapatu zuten garrasika oliotan⁶.

SORGINA ETA BERE SENARRA

Senar-emazte bikote bat elkarrekin bizi zen. Gizona mozkorra eta andrea sorgina, biek eskandalu bizian igarotzen zituzten egunak. Gizona tabernara bere zaldiarekin joaten zen, etxera honen gainean itzultzeko. Andreak behin eta berriz deiadar egiten zion esanez: *Egun batean ikusi behar dituzu gorriak*.

Honela, behin batean gizona beti bezala tabernatik atera eta zaldi gainean jarri zen etxera bidean. Abiatu zenean, sorginak hiru zakur desberdinen itxurak harturik aurrean jarri zitzaizkion, zaldiari hozka eginez. Honela, zaldiak ezin zuen aurrera egin.

Gizona lurreratu eta zakurrak makilaz jo nahian hasi zen; baina beti alferrik, zakurrik ez zuen ukitzen. Honela bide guztian, etxeraino. Etxeko atean sartu orduko gizonak bere burua bota zuen eta ikuiluko ganaduak, zakur zaunkak entzutean, kateak eten zituen eta askatu egin zen.

Honelako batean, andreak bere gizona etzanda lurrean ikusirik, *Zer duzu?* galdetu zion. Gizona ez zen erantzuteko gauza izan, zakur-sorginek eman zioten nahigabearengatik⁷.

SORGIN ANDREA BERE GIZONARI ZALDI-TANKERAN AZALDU

Artzain batek bere semea, artzainmutila, mendian egokitu eta makilaz astintzen zuen. Ilunean artzaina bazetorren menditik etxaldera eta bidean koska bat ikusi zuen eta koska azpian zaldi bat aurkitzen zen behar den bezala antolatua.

6. Amezketan, Kontxi Altuna Garmendia, 59 urte. *Garaiakoetxea* etxea. 1991ko maiatzak 5.

7. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 19.

Artzainak bazekien bere andrea sorgina zela eta, zaldia ikusi zuenean, gizonak bere andrea izango zela pentsatu zuen eta honela esan zion: *Hemen al hago orain ere, mila arraioa, hemen al hago...* eta makilarekin zirikatatu zuen. Ondoren, berehala, zaldiak alde egin zuen berebiziko haize-soinuarekin.

Artzaina etxera joan zen eta ez zuen hitzik egiten. Orduan, andreak, sorgina zenak, galdetu zion: *Zer duk honela egoteko?* eta gizonak erantzun: *Zaldi jantzian, bidean zertan ibili haiz?*, eta andre sorginak erantzun: *Berriz nire semea jotzen baduk, nik pentsatuko diat zer egin hirekin*⁸.

ESKER ONEKO SORGINA

Sorgin bat, gaua sorginkeriekin pasa ondoren, egunak zabaldu zuenean etzanda lurtean gelditu zen, indarrrik gabe, bere burua altxatzeko gauza ez zela.

Bere ondora arrimatu zen bati laguntza eskatu zion baina honek, kasu egin gabe, aurrera jarraitu zuen. Beste bat hurbildu zitzaion eta honi ere laguntza eskea egin zion. Hau sorginaren ezagun bat zen eta lurretik altxa egin zuen eta sorginak horrela erantzun zion: *Zuk mesede bat egin didazu eta, egunen batean, koltxoi azpian alkandora eta galtza parea aurkituko dituzu.*

Egun batzuk pasa ondoren, gizonak koltxoi azpian erreparatu zuen eta baita sorginak agindutako alkandora eta galtza parea aurkitu ere⁹.

AMA-ALABA SORGINAK, MORROIA ETA AKELARREA

Etxe batean, ama-alaba sorginak bizi ziren beren morroi gazte batekin. Gauez, bi sorgin hauek mutila bakarrik utzi eta alde egiten zuten eta behin horrela, morroiak zer gertatzen ote zen jakitea pentsatu zuen; horretarako zizailu batean etzan eta lo-itxurak egiten jarri zen.

Hau honela ikusirik, alabak amari esan zion: *Hori lo dago, eta amak erantzun: Ai, neska, mutilek tranpa asko izaten dinare! Jostorratza sartu behar zionagu.*

Jostorratza sartu zioten baina mutilak lo itxuran jarraitu zuen.

Bi sorginak, pomada miragarritz gorputza igurtzi ondoren, tximinitik gora atera ziren honela esanez: *Hodei guztien azpitik eta sasi guztien gainetik.*

8. Amezketa, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. Arretxe baserria. 1991ko maiatzak 25.

9. Amezketa, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. Arretxe baserria. 1991ko maiatzak 26.

Mutila saiatu zen gauza bera egitera baina oker esan zuen: *Hodei guztien gainetik eta sasi guztien azpitik*. Honela aurpegi guztia odoletan zuela akelarre batera joan zen. Hemen sorgin bat txakolina ematen hasi zitzaion eta mutilak sorgina ezagutuz honela agurtu zuen: *Jesus, etxeoandrea, zu ere hemen!*

Jesus izena entzutearekin, bapatean sorgin guztiak alde egin eta ezkutatatu egin ziren, mutila bakardade osoan gelditurik. Morroi gazte hark urteak igaro zituen herrira itzuli gabe¹⁰.

SORGINA ETA KATUA

Bedaioko mutil bat, auzo bereko Gurrpil Handia baserrira andregaiarengana joaten zen eta bidean aurrez aurre, beti katu beltz bat jartzen zitzaion. Gazteak akuilua eskuan zeraman eta honekin katuari golpe bat eta bestea bota arren, ez zuen jotzen. Baina behin asmatu zuen eta katua betirako ezkutatatu zen. Hurrengo egunean, etxekoneko amona besoa hautsita azaldu zen¹¹.

SORGINA KATU ITXURAN. SORGINAK EZ DIRA ZARTADAK PAREKA EMANEZ JIPOITU BEHAR, ZENBAKI BAKOITIZ BAIZIK

Emakume batzuk lixiba jotzeko tokira joaten ziren. Lan hau egunez egiten zuten baina oraingo honetan honela joaterik ez zuten izan eta gaeuz joan ziren. Iritsi ziren lixiba jotzeko tokira eta lixiba harriaren aurrean katu bat aurkitu zuten. Haietako emakume batek, makilarekin kolpea tira zion katuari baina ez zuen jo. Orduan katuak esan zion: *Berriz jo nazan*. Hau entzunik, emakumea katua sorgina zela eta ez zela pareka jo behar konturatu zen.

Lixibajotzaile hark ikaratu eta etxerako bidea hartu zuen¹².

SORGIN ARDO EDALEAK

Albiasu herriko Ertzatxo etxean, Alondei izenekoan, sorginak biltzen ziren sarrailaren giltza-zulotik sartuz.

Alondei honetan ardoa aurkitzen zuten eta sorginek baita edan ere. Gauzak honela, beraien buru zuten sorginak behin eta berriz adierazten zien bere lagunei *Jesus* hitza sekula ere ez esateko.

10. Bedaion (Tolosako auzoa), Ramona Jauregi Amondarain, 63 urte. *Bedaio Barrena* base-
ria. 1991ko maiatzak 26.

11. Bedaion (Tolosako auzoa), Frantzisko Jauregi Zubeldia, 90 urte. 1991ko maiatzak 26.

12. Altzon, Migel Murua Mendizabal, 62 urte. *Otsegi* baserria. 1991ko ekainak 30.

Gau batean, ardo ona edan ondoren, sorgin haietako bat deiadarka hasi zen esanez: *Jesus, hau ardo ederra!*

Hau entzunik, beste sorgin guztiek, sartutako bidetik, sarrailaren giltzazulotik, alde egin zuten.

Hurrengo goizean, Alondei etxeko ardura zuenak sorgin bakar hura aurkitu zuen, sorgintzako dohaina galdu zuen sorgina izandakoa¹³.

SORGINAK ETXEAN EZ SARTZEKO

Otsagiko sendi bat bere ganaduearekin beti zoritxarrean bizi zen. Hau honela, nire berriemaileak etxe hartako sarreraren ate atzean, erratz bat burua gorantz zuela aurkitzen zuen beti. Etxekoandreari galdetu zion zergatik ote zen ohitura hura eta etxe hartako emakumeak sorginak uxatzeko jartzen zuela horrela erratza erantzun zion; etxetik urruntzeko eta ganaduari kalterik ez egiteko¹⁴.

SORGIN ESPARTZINGILEAK

Uskartze herriko neska gazteak Maulera joaten ziren espartzingintzara, Zuberoako herri honetako neskak langintza honen atzetik zebiltzanean.

Mauleko neska haiei ez bazieten berek nahi zuten erantzuna ematen, baiezkoa, espartzingintzako lan tresna guztiak bapatean gelditzen ziren, Mauleko neska haiek sorginak baitziren¹⁵.

SORGINA HAIZEAREN TANKERAN

Gazte bat artzainmutil egoten zen mendian, gauetz etxera biltzen zela. Baina egun batean ez zen etxera itzuli. Gurasoak kezkatu ziren eta hurrengo egunean mutilarengana joan ziren, zer gertatu zitzaion jakitera. Mutilak adierazi zien haizeak eraman zuela, etxera hurbiltzen uzten ez zion haizeak. Baina lotarako txabola batean laguna aurkitu zuela eta lagun honek, sorgina zenak, esan ziola eskerrak lepoko katean medaila bat zeukala, bestela ez zela etxera itzuliko.

Gertakizun hau apaizari esan zioten eta honek meza bat atera zuen artzainmutilaren onerako. Harez gero, gazte hau gauetz berriro etxera itzultzen zen¹⁶.

13. Albiasun, Ventura Argaña Mugica, 68 urte. *Matxinea* etxea. 1991ko abuztuak 14.

14. Otsagin, Adela Martínez Elizari, 71 urte. *Sandalio* etxea. 1991ko abuztuak 14.

15. Uskartzen (Saraitzu harana), María Jesús Primo Lausarreta, 53 urte. Uskartzeko *Amigo* etxean jaioa. 1991ko abuztuak 14.

16. Arriaranen (Beasaingo auzoa), María Zapirain Ezponda, 58 urte. *Palacio* etxea. 1991ko uztailak 10.

SORGINARI AURPEGIA ERRE

Beheko sua zeukan sukalde batean, gauez emakume batzuk ariketan aritzen ziren, tximinitik behera harri koskorak botatzen zizkietela.

Gertakizun hau adierazi zieten lagun batzuei eta hauek tximinitik gora ontzi batean olio irakina botatzeko esan zuten. Entzun bezala egin eta harri-botatzaile haietako bati –hauek denak sorginak ziren– aurpegia erre zioten. Hau honela ikusirik, beste sorginek zaurituari *Nork zer egin din!* deiar dar eginenez alde egin zuten¹⁷.

SORGINA ETA IKAZKINA

Matximentako gizon bat Lopia ezizenez ezagutzen zuten. Bere bizilekua Gogorzuzu baserria zuen eta ogibideak berriz, nekazaritza eta ikazkintza.

Egun batean, txondarra antolatu ondoren mantentzen ari zen. Halako batean, suak indarra hartu zion eta ezin menderaturik gertatu zen. Txondarra zulaturik, gure gizona betegarri baten barruan aurkitu zen eta une honetan deiadarka hasi zen esanez: *Ni laguntzeko ez al da sorginik edo infernuko demoniorik?*

Berehala sorgin batek erantzun zuen: *Lopia, zer neurritako egurra behar duk?* Hau entzutearekin, Lopia txondarra zegoen bezala utzi eta azkar eta belhurturik etxerantz abiatu zen¹⁸.

GIZON KATU BAT ETA LIBURUA

Aiako Urdaneta auzoan aurkitzen den Otsarreta baserrian, lau neska gazte bizi ziren eta hauek ezertaz jabetu gabe, auzoko gizon zahar xamar bat gauero neska haien gelara sartzen zen katu bihurtuz.

Neskak kurriskaka hasi ziren batean, beraien anaia batek eskopeta bat hartu eta tiro batzuk bota zituen airera. Ondoren, gizon katu hura, Errezabal baserrikoa, ez zen gehiagi neskatarra hurbildu.

Gero, auzoko emakumezko batzuek txerriak zaintzen zebilela ikusi zuten eta andre haietako batek Errezabalgo etxeoandreaki txerri asko zeuzkatela adierazi zion baina honek haren etxean txerririk ez zegoela erantzun zion.

17. Arriaranen (Beasaingo auzoa), María Zapirain Ezponda, 58 urte. *Palacio* etxea. 1991ko uztaillak 10.

18. Matximentan, Sebastián Lasa Esnaola, 77 urte. *Zuaneta* baserria (Azpeitiaren barne). 1991ko uztaillak 21.



Gizona etxeratu zenean eta emazteak txerriekin zertan ote zebilen galde-tzean, honek ezer ez zekiela erantzun zion, bakarrik liburu bat erosi zuela eta hau irakurtzen hastean katu bihurtzen zela.

Gauzak honela, andreak apaizarengana jo zuen eta honek liburua saltzeko esan zion. Liburua saldu zuenean, Errezabalgo gizonari sorgintzaren dohaina kendu zitzaion eta eroslea bihurtu zen sorgin¹⁹.

ANDREA SORGIN BIHURTU

Beasaingo Muru baserriko andrea sorgin bihurtu zen eta honela esan zuen: *Muruko, zazpi seme munduko eta batere ez zeruko*. Hau esan bezain laster, andre sorgin bihurtua betiko ezkutatu zen²⁰.

AUZOKO SORGINA ETA GIZON IRULEA

Baserri batean, sendia oheratzen zenean, bertako andrea sutondoan iruten gelditzen zen. Honela lanean ari zela, sorgin bat hurbiltzen zitzaion eta urdai pixka bat eskatzen zion eta iruten ari zenak eskatutakoa ematen zion. Esandako hau gauero gertatzen zen baina egun batez, andre iruleak bere senarrari gertatzen zena adierazi zion eta honek bere ordezkariaren lekuan iruten jarriko zela erantzun zion; eta esan eta egin. Iruteari ekin eta baita sorgina gauero bezala etorri ere.

Gizona andrearen arropak jantzita iruten ari zen eta honela ari zela ardatzak eskutik alde egiten zion eta lurrera erortzean soinua *kox, kox* egiten zuen. Honela behin eta berriz eta sorginak *kox, kox* entzutean, honela esaten zion: *Lehenago 'farra, farra' eta orain 'kox, kox', zu lehengoa al zara?*, eta nagsiak erantzun zion: *Bai, lehengoa naiz*.

Halako batean, sorginak ohitura galdu gabe eskatu zion urdai pixka bat eta iruten ari zenak urdaia ekarria zuen eta zartaginean botaz, ongi oliotan frijitu zuen eta berehala, zartagineko olio eta urdaia kiskaltzen zeudela, sorginaren aurpegira bota eta dena erre zuen.

Biharamunean, auzoko etxekoandre bat aurpegia dena erre azaldu zen²¹.


SORGINAK UME JAIO BERRIEN HARRAPATZAILE

Sorginak ume jaio berrien etxera joaten ziren gauez eta *Doministiku eta Jainkoak lagun* ez bazuten entzuten, berekin eramaten zituzten.

19. Aian, Aranberri Azkue, 69 urte. *Erreista* baserria. 1991ko urriak 13.

20. Garinen (Beasaingo auzoa), Ignazio Amiano Ayestaran, 74 urte. *Erdiko Etxe* baserria. Jose Antonio Lasa Odriozola, 67 urte. *Garin Arrese* etxea. 1991ko urriak 20.

21. Uitzin, Martin Martirena Arratzio, 71 urte. *Martinperenea* etxea. 1991ko azaroak 3.



Hau honela, sorginek bazekiten etxe batean haurra jaiotzeko zela eta elkarri honela esaten zioten: *Doministiku eta Jainkoak lagun esaten ez badute, haur hori guretzat.*

Baina sorginek esandako hau, oilo-lapurretara joandako beste batek entzun zien. Haurra jaio zen eta sorginak eta zelataria bertan aurkitzen ziren eta sorginek atxis egin zuten. Berehala, gordeta zegoen zelatari izandakoak, bazter batetik esan zuen: *Doministiku eta Jainkoak lagun, sekulan oilorik eramango ez badut ere.*

Hau entzutean, sorginek alde egin zuten beren nahia bete gabe²².

MUTIKOA, SORGINA ETA ERROTARIA

Nire berriemailearen aitona, Antonio Errazkin izenekoa, Unanuan jaioa zen baina Uitzin hazitakoa.

Behin batez, ilunabar batean, behor batekin Lezetako errotara abiatu zen artoa ehotzera.

Azpirotzeko herria pasatu orduko, sorgin bat azaldu zitzaion emakume-tankeran, kalparrak zintzilika eta itxura txarrean. Mutikoa benetan ikaratu eta hitzik egiteko gauza ez zela errotara heldu zen. Hemen, atea jotzeko kemenik gabe, behorak, horrelakoetan zer egin ikasia zena, bere beso batekin atea jo zuen. Berehala errotaria atera zen eta mutikoari honela esan zion: *Badakit zer gertatzen zaizun, bidean sorgin bat atera zaizu eta hark ikaratu zaitu.*

Errotariak afaria eta ohea eman zizkion mutikoari eta biharamunean, egunez, irinarekin etxera bidali zuen²³.

SORGINEKIN HARREMANAK

Ataungo San Martin auzoan, nire berriemailearen aitonaaren aurreko batek sorginak ikusi zituen elkar orrazten Negarregi izeneko iturri ondoan. Gizon hark berak adierazten zuenez, dantzan ibili izan omen zen sorgin artean Zelaun izeneko zelai batean eta zelai honetan bertan ikusi izan zituen sorginak arropak lehortzen²⁴.

22. Uitzin, Martin Martirena Arraztio, 71 urte. *Martinperenea* etxea. 1991ko azaroak 3.

23. Uitzin, Trinidad Rekalde Errazkin, 80 urte. *Buztinea* baserria. 1991eko azaroak 10.

24. Garinen, (Beasaingo auzoa) Pakita Barandiaran Zurutuza, 61 urte. *Garin Arrese* etxea. 1991ko abenduak 8.

SORGINA PRAILE JANTZITA IBILI

Eliza ondoko etxe bateko alaba, beste herri batean ezkondata bizi zen eta herriko festetan bere jaiotetxera biltzen zen. Urte haietako batean, festak heldu ziren eta neska, ohiturari jarraituz, bere etxera bildu zen.

Gaua zen neska hau leihora irten zenean zer eguraldi zegoen begiratzera. Honela leihoan zegoela, gizon-tankerako bat gora eta behera ikusten du airean ibiltzen behin eta berriz.

Honelako batean, airean mugitzen zen hau leiho batetik elizara sartu zen. Gero, eliza barnean denbora pixka bat igaro ondoren, sartutako lekutik prailaz jantzita irten zen eta berriz ere gora eta behera ibiltzeari ekin zion. Honelako batean, berriz ere elizara sartu zen baina oraingoan, barruan denbora asko egin ondoren betiko leihotik atera zen eta haize soinu handi batekin, herrian behera airean joanez, ezkutatu egin zen.

Neskak ez zuen gehiago ikusi praile miragarri hura, betirako ezkutatu zitzaion. Hurrengo goizean, ohetik jaiki zenean, neskak aitari esan zion ikusi zuena eta aitak herrian sorgin bat zegoela jakinarazi zion eta hura izango zela gauean airean ibili ondoren elizan sartu eta prailaz jantzita ibiltzen zena²⁵.

SORGIN BATEN MEHATXUA

Bedaioko Zumizketa baserritik, gizon bat gaztak eramanaz gauez Nafarroara abiatu zen. Bidean zihoala, sorgin bat azaldu zitzaion esanez: *Joan Peritz (Felix?) itzul hadi honuntz; aurrera baldin bahoa hortzak zorrotz*. Baina Zumizketako gizonak bidean aurrera jarraitzen zuen eta honelako batean sorgina bere ondoan jarri zitzaion errepikatuz: *Joan Peritz, itzul hadi honuntz; aurrera baldin bahoa hortzak zorrotz*.

Gazta-garraiatazalea zeharo beldurtu zen eta baita etxerantz itzuli ere; baina etxearen sarrerako ateak itxita aurkitu zituen eta leihotik sartzen hasi zen. Bapatean, sorgina ikusi ote zuen ustez edo sorgina berarekin zuela-koan, bertan lurrera erori zen eta bere bizi osoan gehiago ez zuen onik izan²⁶.

(Ipuin honekin zerikusia dutenak Gabaz apustu egiteagatik eta Aizkolari azkarrak izenarekin nire Euskal pentsamendu majikoa liburuan azaltzen dira).

25. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. Arretxe baseria. 1992ko urtarrilak 12.

26. Bedaion, Josefa Antonia Agirrezabala Zabala, 66 urte. Bedaio Bitarte baseria. 1992ko urtarrilak 22.

BI SORGIN BEDAIOKO EDAR ITURRIN

Bedaion, Bedaio Barrena izeneko baserriko etxeoandreak alabari honela esan zion: *Bihar goizean lixiba jo behar dun.*

Iritsi zen goiza eta beren Edar Iturrira joan zen, hobeki esateko, iturri hartara hurbildu zen. Eta hurbildu ahala, lixiba jotzearen soinua entzun zuen. Bertaratzean amona handi bat gona gorria eta purrutxetarekin (buruko paine-luarekin) aurkitu zuen, neska gazte bat ondoan zuela begira-begira. Bedaio Barreneko neska, ezezagun haiek ikustean, ikaratu eta etxera itzuli zen. Etxean, amak zer gertatzen zitzaion galdetzean, alabak hala erantzun zion: *Gure Edar Iturrin bi lagun arrotz lixibajotzen ari dira.* Hau entzun orduko, amak esan zion hori ezin zitekeela, baina hala eta guztiz ere bertara joan eta bidali egin behar zituztela.

Ama-alabak aipaturiko iturrira joan ziren, baina han ez zuten inor aurkitu, ez zen ageri sorginen arrastorik. Gero, Bedaio Barreneko neskek lixiba jo zuen eta etxerantz abiatzean, sorginek oihu egin zioten atzetik, hau esanez: *Hurrengoan ere gu hemen izango gaitun!*

Handik hamabost bat egunera neska berriro Edar Iturrira joan zen lixiba jotzera. Beldurrez joan zen, aitaren egin eta ekin zion bere lanari. Oraingoan ez zuen inor ikusi²⁷.

SORGINKERIAK MENDIAN

Lizartzan laian aritu ondoren, afaldu eta Bedaioko Jazku Goiko baserrira gizona itzultzen ari zela, Aiñi mendian zehar Lizartzako langasarera heldu zen. Ez zuen ezer ikusten, baina izugarrizko txikiketa-hotsa entzuten zuen. Gizona erabat beldurturik, txapela ileen puntan zuela, aipatutako langasare-tik lauhunen bat metrora aurkitzen den Etxeberriko ilor edo bordan sartu zen eta pozezko oihu-irrintzia egin zuen.

Bere etxean, Jazku Goiko baserrian lo egin ondoren Aiñiko langasarera itzuli zen zer gertatu ote zen ikustera, baina han dena beti bezala aurkitu zuen.

Hau nire berriemailearen garaietan gertatutakoa da. Aitona haren izena Jose Maria Zabala Olazabal zen, laurogeita bederatzia urterekin 1943. urtean hila. Bere ustez, gau hartan sorginak ibili ziren. Ipuin honek *Zezen gorriak basoan* izena duen eta Bedaion bertan jasotako beste ipuin bat gogorarazten du²⁸.

27. Bedaion, Josefa Antonia Agirrezabala Zabala, 66 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko urtarrilak 22.

28. Bedaion, Frantzisko Jauregi Agirrezabala, 70 urte. *Bedaio Bitarte* baserria (lau etxebizitzako baserria). 1992ko urtarrilak 26.

SORGINA ARDI-ITXURAN

Lagun-koadrila eztabaidan ari zen tabernan, sorginak bazirela eta ez zirela esanez.

Sorginetan sinesten ez zuen haietako bat, gaua iristean, etxerantz abiatu zen eta ustekabeen ardi bat jarri zitzaion aurrez aurre. Gizona pausorik eman ezinda geratu zen; ezin zen aurrera joan eta ezker-eskuin mugitzen zenean ere beti ardiarekin topo egiten zuen.

Etsi zuen eta ardi-itxuran sorgina zeukala pentsatzean, begira-begira jarri eta eskuetako atzamarrekin gurutzea egin zion eta bapatean ardia desagertu egin zen.

Hau gertatu eta gero, gizonak berehala sinestu zuen sorginak bazirela²⁹.

ANDRE SORGIN BATI BERE SORGIN-DOHAINA ATERA KATU-TANKERAN

Andre bat, sorginkeritzako ukendu batekin gorputza igurtzi ondoren, oheratu eta gora begira jartzen zen.

Honela zegoela ahotik katu-irudi bat ateratzen zitzaion eta andrea hilda bezala geratzen zen.

Katu sorgina itzultzen zenean ahotik andrearen barrura sartzen zen eta hau berriro piztu egiten zen.

Behin batean, katua sorginkeriak egin ondoren kanpotik etxera bildu baino lehen, etxekoek gorputza ahuspez jarri zuten, eta honela ikusirik, katua batera eta bestera mugitzen zen, gora begira berriro jarri arte. Gauza hauek guztiak gauez gertatutakoak dira³⁰.

LOTAN ZEGOEN ANDRE BATI SORGINAK IZTERREAN HOZKA

Nire berriemailearen amari –Josefa Antonia Telletxea zuen izena berak– ohean lotan zegoela eta bera konturatu gabe sorgin batek izterrean hozka egiten zion.

Goizean jaikitzen zenean, hortzak nabari zituela agertzen zen. Urdin-urdin jarri eta hozkada hura txartu egiten zen eta emakumeak egarri handia izaten zuen. Ez da ahaztu behar kolore urdina dela etsaiarentzat atseginena.

29. Bedaion, Jose Maria Zabala Jauregi, 67 urte. *Jazku Goikoa* baserria. 1992ko urtarrilak 26.

30. Amezketan, Juliana Karrera Agirrebarrena, 60 urte. *Unanbide* baserria. 1992ko maiatzak 26.



Esandako hau behin baino gehiagotan gertatu zitzaion, eta urtean behin edo bitan egiten zioten hau.

Semeak, nire berriemaile denak, hamabi urte zituela ezagutu zuen aurreneko aldiz sorginak amari egindako zauria. Eta orain dela berrogei bat urte hozka egin zioten azkeneko aldiz Josefa Antonia Telletxeari. Beronen etxeko-entzat ez zegoen zalantzarik hozka egiten ziona auzoko emakume sorgin bat zela. Sorgin hark herriko beste gizon bati ere egiten omen zion hozka³¹.

MARTIN MOTELAREN LARRITASUNAK SORGIN-ETXE BATEAN

Martin Motela ezizena zuen eta Bedaioko Zugasti Goikoa baserrian bizi zen; gau batean zaldi gainean mendian zehar zihoan, eta urruti batean argizpi bat ikusi zuen etxe bateko leihoan.

Martin Motelak etxe hartara hurbildu eta atea jo zuen eta sarrera eman zioten. Sukaldera eraman zuten eta aulki batean eseri zen.

Honela zegoela ontzi handi batean ume-eskuek surtan egosten ari zirela ohartu zen eta berak ere ez zuela izango gauza onik uste izan zuen.

Martin Motelari zango batean soka lotu zioten, atzamarrean eraztun bat jarri eta ohera bidali zuten.

Ohean zegoela, zer egin zezakeen pentsatzen zegoen. Honela, zangotik soka kendu eta ikuiluan zegoen zaldi bati jarri zion. Horrela, alde egiteko libre geratu zen bera. Baina eraztun hura behin eta berriz *Hemen duk, hemen duk!* errepikatzen hasi zen.

Orduan sorginak ohartu ziren gizon arrotzak ihes egin ziela eta txakurrak hartu eta bere bila abiatu ziren.

Martin Motelak bere atzetik txakurrak somatzean, zuhaitz baten gainera igo eta eraztuna zeukan atzamarra moztu eta erreka batera bota zuen. Han ere eraztunak *hemen duk, hemen duk!* esaten jarraitzen zuen eta deiadar honen atzetik sorgin guztiak errekarara sartu ziren.

Martin Motela, etxera atzamar bat falta zuela joan zen, baina pozik bizirik geratu zelako³².

31. Ezkurran, Migel Mariezkurrena Telletxea, 80 urte. *Paskolenea* borda. 1992ko maiatzak 15.

32. Bedaion (Tolosako auzoa), Josefa Antonia Agirrezabala Zabala, 66 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko otsailak 9.

ASTOA ETA SORGINAK

Bedaion dagoen Belarmuga baserriko aitona, Jose Ramon Zubillaga izenekoa, astoa zahagi-ardoarekin kargatuta Nafarroatik auzoko etxe batera zetorrela, bideko baso batean izugarrizko adartxikitzea entzun zuen.

Gauzak honela, Belarmugako gizonak bere buruari esan omen zion: *Hemen ez zegok gauza onik, sorginak zebiltzak.*

Orduan gogoratu zitzaion astoak gurutze bat zeramala eta pentsatu zuen: *Astoari isatsetik heldu behar zioat.*

Astoaren isatsari heldu zion eta bapatean isildu ziren soinu guztiak. Basoa baretu zen eta Belarmugako gizona gorabeherarik gabe etxeratu zen³³.

IBILI EZINEAN AURKITZEN ZEN SORGINA

Nire berriemailearen ama eta ahizpa, gazteak zirela, Hernaniko herritik beren bizilekura zihoazen, herri berean dagoen Bidaurreta baserrira.

Bidean ilundu egin zitzairen, baina halere, lurrean etzanda zegoen gizonetako bat ikusi ahal izan zuten.

Etxerantz zihoazen neskek *gabon* esanez agurtu zuten lurrean aurkitzen zena, eta gizonetakoak hala erantzun zion haietako bati: *Ukitu nazan.* Hau entzutean gazteek izaturik korrika bizian etxera alde egin zioten. Etxean esan zuten zer gertatu zitzairen eta amak adierazi zien gizon hura ukitu izan balute alde egingo zuela, sorgina zela eta³⁴.


SORGINAK TXERRI-ITXURAN

Nire berriemaileak entzuna du amona haurra izateko aurkitzen zen batean, seme zaharrena medikuarengana bidali zuela. Betebehar honetarako bidean zihoala, sekulako txerri-saila jarri omen zitzaion aurrean. Mutilak makila bat zeraman eskuan eta bidea libratzeko harekin jo egin nahi izan zituen, baina gogoarekin geratzen zen, zeren eta txerriak bapatean ezkutatu egiten baitziren. Hala gertatu zitzaion behin eta berriz.

Etxean esan zuenean zer gertatu zitzaion, txerri haiek sorginak zirela erantzun zioten. Bedaio bertako Joan Zubeldiak esaten didanez, auzoko

33. Bedaion (Tolosako auzoa), Josefa Antonia Agirrezabala Zabala, 66 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko otsailak 9.

34. Bedaion, Ana Yarza Etxenike, 72 urte. *Elizetxe* baserria. 1992ko otsailak 16.



amona bati galdetu zioten txerri-itxuran ibili ote zen eta berak baietz erantzun omen zuen³⁵.

SORGINA KATU BELTZ BIHURTU

Auzoko batzuk gau-beila pasatzera joan ziren etxe batera, eta gauerdian etxeko nagusiak arrebari bere bizilekura joaten lagundu zion. Bidean zihozela katu beltz bat agertu zitzaien eta gizonak indar guztiaz ostiko bat eman zion.

Hurrengo goizean gizon honi andre bat etorri zitzaion etxera eta sutondoan eseri zen gerriko min handia zeukala esanez.

Gero gizonak hala esan zion bere familiari: *Bai, badakit zer duen emakume honek, atzo gauean ostiko bat eman nion katu bihurtuta aurkitzen zela*³⁶.

SORGINA FRANTZIAKO MUGA PASATZEKO LAGUNTZAILE

Arantzatik neskatxak Frantziara joaten ziren neska. Isilka, behar zizutuzten paperak gabe joaten ziren eta berekin beltzez jantzitako emakume zahar bat eramaten zuten gidari.

Emakume hark bere senarrarengandik hartua zeukan sorgin-dohaina. Frantziako mugan, neska laguntzen zituenean, goardiek ez zuten ez bera ez neskarik somatzen ez ikusten³⁷.

GIZONA ARBOLAREN GAINEAN

Bi gizon eztabaidan ari ziren tabernan, sorginak bazirela eta ez zirela esanez.

Ez zirela esaten zuena, gau batean, etxera zihoan eta sorginak bidera atera zitzaizkion, behin eta berriz honako hau esanez: *Ez gerala baina bagaituk, ehun eta berrogeita hamalau hemen gaituk!*

Gizon hark hurrengo goizean bere burua zuhaitz baten puntan eskegi zuen³⁸.

35. Bedaion, Ana Yarza Etxenike eta Joan Zubeldia Zubeldia, 72 eta 78 urte. *Elizetxe* base-
ria. 1992ko otsailak 26.

36. Arantzan, Mari Karmen Albistur, 58 urte. *Apezenea* etxea. 1992ko martxoak 2.

37. Arantzan, Mari Karmen Albistur, 58 urte. *Apezenea* etxea. 1992ko martxoak 2.

38. Hernialden, Balentina Ugartemendia Zubillaga, 61 urte. *Maioz* baserria. 1992ko otsai-
lak 29.

EZKURRAKO TONTORGORRI SORGINA

Igande gauetan, nire bi berriemaileen aitak herriko tabernan biltzen ziren. Gau haietako batean albienteak erronda egin ondoren kanpora atera ziren eta hemen elkarrizketa jarraitu zuten.

Honela zeudela ondotik emakume bat pasatu zitzairen, Tontorgorri izengoitiz ezagutzen zen emakumea, eta bi mutil gazte haietako batek harri-koxkor bat bota zion. Orduan, Tontorgorri haserretu eta bere etxean sartu zen.

Berehala goiko balkoi batean azaldu zen kanpora begira, zangoak zabal-zabal eta kandela piztua eskuan zuela. Mutilak harrika hasi zitzaizkion, baina harri haiek ez zuten Tontorgorri ukitzen.

Hau ikustean mutilak ikaratu egin ziren eta *Hemen ez zegok gauza onik* esanez etxerako bidea hartu zuten. Bide hark lohitegi batetik pasa behar zuen eta bertan astoa ikusi zuten.

Orduan, bi mutilek elkarri esan zioten: *Asto hori harrapatu behar diagu*. Baina harrapatzen hasi zirenean astoa bapatean desagertu, ezkutatu egin zen.

Hau ikusirik, bi gazteak, erabat izuturik, nor bere etxera joan ziren³⁹.

ARTZAINA ETA SORGINAK

Berroetako artzain batek borda bat zeukan Berastegi-mendin. Bordaren ondoan txabola zuen eta haren inguruan lizar-arbola batzuk. Haien adarrak bi urtez behin mozten zituen, hostoak lehertzeko. Hosto lehorrak ardientzako bazka izaten ziren.

Lizar-adarrak mozteko artzaina arbola gainera igotzean, inguruko beste arbolen gainean sorginak ikusten zituen.

Artzain hau ikaratuta herrira itzultzen zen, sorginak bazirela behin eta berriz errepikatuz. Baina herriko lagunek ez zioten sinesten.

Gauzak honela, artzaina ilunabar batean bordara joan zenean, lizar-arbolaren gainean sorgin bat ikusi zuen larru gorritan. Artzain hark egunez ez zuen sorginik ikusten, baina gautzen hastean bai⁴⁰.

39. Ezkurran, Maria Elizalde Mariezkurrena eta Migel Gastearena Escala, 62 eta 72 urte. *Komenzanea* borda. 1992ko martxoak 3.

40. Arraiozen (Baztan harana), Modesto Jorajuria Larramendi, 77 urte. *Señorenea* etxea. 1992ko martxoak 3.

TONTORGORRI SORGINAK GURDIA BEHAR BEZALA JARTZEN LAGUNTZEN DU

Ezkurran dagoen Paskualena bordako gizonek gurdia belarrez kargatuta zeramatera, irauli egin zen.

Bi anaien artean ezin zuten gurdia zuzendu eta halako batean Tontorgorri izenez ezagutzen zuten sorgina azaldu zitzaien, buru gainean zama txiki bat zotz zeramala.

Gizonak nahi zutena ezin lorturik ikustean, pixka batean itzaroteko eskatu zien Tontorgorri, berak lagunduko ziela eta. Esan eta egin: buruko zama bazterrean utzi eta bere laguntzarekin bi gizonek aise irauli zuten gurdia. Tontorgorri sorgina mehe-mehea omen zen⁴¹.

TONTORGORRI SORGINA NOLA HIL

Tontorgorri sorginak, hil baino lehen, beste bati utzi behar zion bere sorgin-dohaina, baina hori egin ez zuenez gero, ezin hilik aurkitzen zen. Hiltzeko behar-beharrezkoa zuen, beste sorgin askok bezala, bere sorgin-herentzia beste norbaiti pasatzea.

Adierazi zioten apaizari zer gertatzen zen eta honek sorginaren etxekoei entzun eta gero esan zien Tontorgorriren eztarrira belarra botatzeko eta horrela sorgina ito egingo zela. Halaxe hil zen Tontorgorri⁴².

GURUTZEAK SORGINAK UXATZEN DITU

Bedaioke bi gazte neska-laguntzetik etxera zihoazela berebiziko haizea sortu zen eta batak besteari honela galdetu omen zion: *Hi al habil hemen?* Baina haizea orduan eta zalaparta handiagoan zebilen.

Gazte haietako batek etxea eroso zeukan eta berehala iritsi zen. Baina bakarrik geratu zena gero eta estuago aurkitzen zen eta bere larrian Bedaioke errota baserrira sartu zen deiadarka: *Sorginak segika zetozkidak*. Eta errotariak esan zion: *Etor hadi nirekin*. Sutatik ilintia hartu eta harekin gazteak ibili beharreko bideari begira gurutzea egin zuen. Orduan haizea baretu, gaztea lasaitu eta etxerako bideari jarraitu zitzaion⁴³.

41. Ezkurran, Fermin Apeztegia Telletxea, 62 urte. *Torrainea* borda. 1992ko maiatzak 13.

42. Ezkurran, Lazaro Gastiarena Telletxea, 82 urte. *Garaikoetxea* baserria. 1992ko maiatzak 13.

43. Bedaion, Ramona Otamendi Jauregi, 56 urte. *Gurbil Aundi* baserria. 1992ko maiatzak 17.

KATU SORGINA ERRE

Bedaioko Saberri baserriko etxeoandreak bere umeari ahia emateko ohitura zuen. Baina horretan aritzen zenean katu batek ahia lapurtu egiten zion. Hau maiz gertatzen zitzaion eta honelako egun batean katuari ur irakina botatzea bururatu zitzaion.

Ur irakina bota zionean katuak garrasi bizian alde egin zion. Hurrengo egunean Saberriko etxeoandreak esan zuen norbait agertuko zela zerbait erreta zeukana, eta bai azaldu ere: auzoko amona bat eskuak eta aurpegiak erreta zituela.

Saberriko etxeoandreak hura hala ikustean esan zion: *Bart zer ibili haiz?*⁴⁴.

SORGINAK –HAIETAKO BI IDI GORRI-TANKERAN– ETA BEDAIOKO ELIZA

Bedaion bazuten Ama Birjina zahar bat baina elizarik ez.

Halako batean, bedaiotarrek eliza egiteko asmoa hartu zuten, gaur egun Eskoletxe izenez ezagutzen den parajea.

Leku hartara Ama Birjina eraman zuten, baina gauerdi inguruan idi gorri pare batekin –hauek ere sorginak ziren– gurdi bati tiraka, orain eliza aurkitzen den lekura itzuli zuten.

Sorginek, bidean zihoazela, honela deiadar egiten zieten sorgin idi gorriei: *Aida, gorri!*

Hau baserriko leiho batean zegoen gizon batek entzundakoa da⁴⁵.

SORGIN LAPURRARI ZIGORRA

Ume bati sorgin bat aurrean jartzen zitzaion otordu-garaian eta inor konuratzeke jana kentzen zion. Horrela haurra erabat ahulduta aurkitzen zen. Etxekoak ohartu ziren gertatzen zenaz eta apaiz batengana jo zuten berri emanez.

Apaizak esandakoa entzun ondoren, goilarekada bat olio irakinekin ahoaren ondoan jartzeko gomendatu zien. Apaizaren esana egin zuten eta, ohizko jokabideari jarraikita, sorginak goilareko olio hartu zuen eta ahoa erre zitzaion. Sorgina bapatean garrasika hasi zen eta txilio haiek entzutean sor-

44. Bedaion, Ramona Otamendi Jauregi, 56 urte. *Gurbil Aundi* baserria. 1992ko maiatzak 17.

45. Bedaion, Joan Zubeldia Zubeldia, 78 urte. 1992ko maiatzak 27.

gin-mordo bat inguratu zen, zaurituari zer gertatzen zitzaion galdezka. Sorgin lapur aho-erreak erantzun zien lagunei: *Ezer ez, neronek neure buruari*. Hau entzutean, beste sorgin guztiak ezkutatu ziren⁴⁶.

46. Ezkurran, Fermin Apeztegia Telletxea, 62 urte. *Torrainea* borda. 1992ko ekainak 14.

Jentilak

JENTILEK MUGARRIA BEHAR EZ BEZALA KENDU ZUEN BATI AHOLKUA EMAN

Baserritar batek mugarría, gurutze bat berekin zuena, behar ez bezala bere lekutik kendu eta leize zulo batera bota zuen. Beste baserritar batzuk ohartu ziren txarkería honetaz eta adierazi zioten behar zen lekuan berriz mugarría jarri behar zuela.

Gizona estutu egin zen eta baita leizezulora jaitsi ere harria jasotzeko asmoz. Leizezulo honetan jentilak aurkitzen ziren eta baserritarrek mugarría hartu zuenean gurutzea atzekaldera zuela, honela esan zioten: *Horrela ez, hartu harria bizkarrean gurutzea aurrean dela, bestela ez duzu eramango.*

Baserritarrek jentilen esana egin eta mugarría bere lekuan jarri zuen⁴⁷.

JENTIL BATEN JOKAERA

Intzako Zapatandei izeneko baserrira jentil bat joaten zen, *Ilehori* ezizenez ezagutua. *Ilehori* txikia zen, ez zuen hitzik egiten eta mahai azpian egoten zen ematen ziotena jaten. Baserriko sendiaren otordu aurreko errezoa entzutean, txistua botatzeari ekiten zion. Gaua etortzean, inor konturatu gabe, isilean ezkutatu egiten zen bere lagunengana hurbilduz. Hau eguneroko jokaera zuen.

Jentilak ezkutuan bizi ziren eta behin batez artzain bat menditik etxerantz zihoala, jentilek beren gordelekutik honela esan zioten: *Zapatandeko Ilehoriari esaiok Txirrimirri hil dela*. Artzainak eginbeharra bete zuen eta *Ilehori*, albiste hau entzuterakoan, bapatean garrasi bat eginez betirako ezkutatu zen, bere lagunetara bilduz. Jentil txiki haren arrastorik ez zen gehiago izan⁴⁸.

47. Amezketa, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserría. 1991ko maiatzak 1.

48. Amezketa, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserría. 1991ko maiatzak 1.

JENTILEN BIZIMODUAZ OHAR BATZUK

Nire berriemaileak bere aitona Joakin Saralegiri entzuna dio Latosa, Zotaleta, Astarteta, Zabalegi, Angone, Etizegi eta abarreko haizpetan jentilak bizi zirela.

Ernaizko mendi gailurrean labea zuten ogia egiteko eta honetarako Nafarroako Sakanatik ekartzen zuten irina. Jentil batek, hamasei zezenen larruarekin egindako zakua irinez betea leporatzen zuen eta handiagoa ekartzeara ere izango zuen bidean itxaroten jakin balu, jentilek ez baitzuten atsedena zer den ezagutzen.

Burdinaren berririk ez zuten eta honen ordeztu egurra erabiltzen zuten. Egurraekin zulatzen zuten haitzeko harri librea, harri bizia harrapatu arte. Arrokan lortzen zuten haizpea beraien bizilekua izango zen.

Sua sortu zuten bi egur hartu eta batak bestea berotuz. Lan hau neketsua zenez, sailak sutan jartzen zituzten. Ordurarte, janaria gordinik jaten zuten.

Behiak jectzen ere ez zekiten eta esnea edateko, beraien indarraren poderioz, ganadua hanka batetik altxatzen zuten eta errapetik edan.

Artaldeak bazituzten eta artzantzako ekintzari kasu egiten zioten. Hartziko labanarekin behor basatiak hiltzen zituzten, labana sorbaldatik sartuaz. Labana haiek zortzi arroba pisatzen zuten, hau da, ehun kilo bakoitzak⁴⁹.

JENTIL GIZAJALEAK

Ataungo basoetan jentilak bizi ziren; jende gaztea eta umeak harrapatzen zituzten eta gehiago ez ziren azaltzen. Herrian, jan egiten zituztela esaten zen. Ataunen ezin bizitzea ezagutzen hasi ziren, biztanle guztiak belhurtuta zeudela.

Azkenean, indar armatua ekarri zuten, militarrik ekarri zituzten eta hauek jentilen garbiketara egin zuten eta herria lasaitu⁵⁰.

JENTIL ONA ETA INDARTSUA

Ataungo basoan jentil indartsu bat bizi zen, gaiztakeriarik ez zuen jentila, bere indarra probatu nahi zuena.

49. Amezketan, Jose Sagastume Saralegi, 71 urte. *Larremendi* baserria. 1991ko maiatzak 12.

50. Amezketan, Jose Sagastume Saralegi, 71 urte. *Larremendi* baserria. 1991ko maiatzak 19.

Egun batean, herrira jaitsi zen, herri hartan indarrrik gehiena zuena zein ote zen galdetuz. Hau emakume bati galdetu zion eta honek adierazi zion gizon indartsuena Patxi errementaria zela. Jentila Patxi Errementariarengana joan zen borrokan egiteko asmoz. Errementariak pixka bat itxaroteko esan zion; sutan gorritutako orrikak hartu eta atzekaldean gordeaz jentilarengana arrimatu zen, eta bapatean, orrika-kolpe batez sudurra moztu zion.

Jentil zauritu hau, Patxi Errementariaren atzetik abiatu zen baina ez zuen harrapatu. Ondoren, jentila herrira joateaz lotsatu egiten zen sudurra moztua zuelako eta herritarrak berak basora joaten zitzaizkion bisita egitera⁵¹.

JENTILAK LAINOAREKIN ADIERAZTEN DU KRISTOREN JAIOTZA

Garai batean lainorik ez zen baina bapatean, mendian bizilekua zuten jentilek bat ikusi zuten eta hau zer zen ez zuten antzematen. Beraien buru, jentil zahar bat aurkitzen zen, betazalak erorita ezer ikusten ez zuena.

Adineko jentil honi galdetu zioten zer gertatzen zen baina honek ezer ez zuela ikusten erantzun zien eta betazalak altxatzeko. Nahi hau betetzeko larogei arrobako balanka erabili zuten eta jentil zenak lainoa ikusi zuenean, honela deiadarkatu zuen: *Kristau Tximue sortu duk, ahal dena ahal den tokira ezkuta dadila*⁵².

(*Ipuin oso berdintsua J. M. Barandiaranek jasoa du, Olentzerorekin uztartuz*).


JENTIL ZAHAR BATEK ZAKUR HANDI ETA INDARTSUA BORROKAN AKABATZEN DU

Jentil zahar bat mendian bakardadean bizi zen, eskuratzen zuen animalien haragi gordina janez. Ordurako, kalean jendea bizi zen eta bazeukaten jentil honen berri.

Herritarren artean zakur handi eta indartsu bat zeukaten eta honen nagusiak errepikatzen zuen behin eta berriz, munduan ez zela esku hutsez bere zakurra menderatuko zuenik. Herri hartan bazekiten jentila indartsua zela eta berarengana hitz egitera joan ziren, herriko zakur handi eta indartsu bat menderatuko ote zuen galdetuz. Jentilak erantzun zien: *Zakurrekikoa egingo dut*. Honetan, herrira jaisteko jantzirik ez zeukala adierazi zuen eta eliz gizon handi baten abitua eman zioten; hau txikia geratzen zitzaion baina frailez jantzita agertu zen.

51. Amezketa, Jose Sagastume Saralegi, 71 urte. *Larremendi* baserria. 1991ko maiatzak 19.

52. Amezketa, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 19.



Plazan aulki bat eskatu zuen eta honetan eseri zen, belaun bat doblatua eta aurrekaldera zuela. Nagusiari esan zioten zakurra jentilarengana botatzeko eta honela egin zuen. Zakurra jentilari belauetik heltzen hasi zitzaion eta hozka egiteko ahoa ireki zuenean, jentilak atzaparrez heldu eta bi eskuekin ahoa txikitu zion. Zakurra akabatu egin zuen. Gauza bera gertatu zen zezen batekin ere⁵³.

JENTILA ETA LEHOIA

Jentil bakarti bat animalien artean bizi zen eta animalia hauen artean, lehoi bat aurkitzen zen.

Lehoi hau, hankatik gaixotu zen eta jentilak lehoia sendatu zuen, sartuta zeukan arantza atera egin baitzion.

Kalean jendea bizi zen eta jentilaren inguruan ibiltzen ziren animaliek artaldeak jaten zizkieten; beraz, kaletarrek jentila eta animaliak harrapatu eta kanporatzea erabaki zuten. Berehala bete zuten nahi hau.

Jentila plazara eraman zuten eta lehoi bat bota zioten bera puskatzeko asmoz. Lehoia zalapartan atera zen jentila hiltzeko asmoz baina ondoratu zenean begira geratu zitzaion eta baita ezagutu ere, bera baitzen hanka sendatu ziona. Jentilaren inguruan bi buelta eman zituen eta jentilak eskua bizkarrean jarri zion. Hau ikusirik, kaletarren buru egiten zuena jentilarengana hurbildu zen lehoiak ezagutzen ote zuen galdetuz eta erantzun hau jaso zuen: *Lehoi hori nik bizirik atera nuen*. Hau jakinik, jentila eta lehoia bizirik utzi zituzten⁵⁴.

JENTIL BALANKARIAK

Gure herri kirolen barnean, balankariak, burdin barra botatzen zutenak, beren lekua eta garrantzia izan zuten. Umetan entzuten genuen gure aurrekoak nola mintzatzen ziren halako herriko balankariaz, bere izena apustulari indartsu batekin uztartuz.

Ondorengo ipuin honek adierazten digu berriro ere, jentilen indar handi eta berezia.

Amezketako Otaskarko mendi gaineko zuloetan jentilak bizi ziren eta kobatik ateratzen ziren bakoitzean, beren balankak eskuetan zeuzkaten, honela deiaraz eginez: *Ahí va balenka, tira Salamanca*, balanka Jazku mendi gaineraino botatzen zutela. Jazku mendi hau, Tolosako Bedaio auzoan aurkitzen da⁵⁵.

53. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 19.

54. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 19.

55. Bedaion (Tolosako auzoa), Ramona Jauregi Amondarain, 63 urte. *Bedaio Barrera* baserria. 1991ko maiatzak 26.

Amezketako Artubi eta Zalegi mendi gaineko zuloak, jentilek egindakoak dira, bakoitzak bere balanka erabiliz. Jentil bakoitzak, bere balanka mendi hauen gailur batetik bestera botatzen zuen, bostehun bat metro bidean.

Jentilen mundua utzita, Amezketako balankaririk onena Martiñe baserrian bizi zela esango dugu. Honen izena Joan Manuel zen, gizon handia eta indartsua benetan. Bere balanka erabili ondoren, mantar zurietan garbitzeko ohitura zuen. Balankari hau, orain dela berrogeita bost bat urte hil zen⁵⁶.

ORMAIZTEGIKO ZUBI BAT ETA JENTILAK

Ormaiztegioko zubi bat egiteko jentilak aukeratu zituzten. Lan hau gau batean amaitu behar zuten, eguna argitzerako. Jentil hauek asko ziren. Tomas izenekoak gutxienak ziren, hiru mila; beste izenekoak askoz gehiago.

Ilaran jartzen ziren eta Aralartik eskuz esku harria ekartzen zuten, batak besteari bere izenez deituaz.

Eguna zabaltzearekin, bapatean lanari utzi zioten eta guztiak beraien bizilekura joan ziren, zubia bukatzeko harri bat jartzea falta zutelarik⁵⁷.

JENTILAK BEREN BURUAK DEFENDATZEN

Jentilak mendian bizi ziren eta kristauek, kaletarrek, harrapatu egin nahi zituzten. Jentilek, beretako bat zelatan jartzen zuten eta honek, kristauak hurbiltzean, bere adarra jotzen zuen. Adar-soinu honekin bere lagunei zer gertatzen zen adierazten zien.

Adarra entzun bezain laster mendi gailurrean biltzen ziren eta kaletarrak aldapa gora hasten zirenean, prestatuta zeuzkaten harri handiak hartu eta pirilka goitik behera botatzen zituzten. Honela kaletarrak hiltzen zituzten⁵⁸.

JENTIL INDARTSUA


Ernion jentil indartsu bat bizi zen eta balanka boteaz indarra agertu ordez, harriekin adierazten zuen bere dohain eta indarra.

Jendeak bazuen jentil honen berri eta beren eztabaidak argitzeko, haren indarra probatu nahian, berarengana hurbildu ziren. Jentilari beraien nahia azaldu ondoren, honek harri handi bat lurretik jaso eta bere bizilekutik, Ernio-

56. Amezketan, Jose Sagastume Saralegi, 71 urte. *Larremendi* baserria. 1991ko ekainak 2.

57. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 2.

58. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 9.



tik, Aralarko Alotza mendiraino bota zuen. Ekintza honen lekukoei jentilak esan zien non aurkituko zuten botatako harria eta baita esandako leku berean ikusi ere⁵⁹.

JENTIL INDARTSUA

Jentilak ziren ama-emeak elkarrekin bizi ziren. Amak sua pizteko behar zituen txotxak ekartzeko eskatu zion semeari. Hau abiatu zen amaren esana betetzera eta esku bakoitzean zuhaitz bana zituela itzuli zen amarengana. Semearen ekintza eta indarra ikusirik, ama harrিতa geratu zen eta honela adierazi zion: *Zuhaitz horiek ez dute sua pizteko balio*, eta amak berak bildu zituen sua pizteko behar zituen txotxak⁶⁰.

AMA-SEME JENTILAK ETA BERAIEIEN MORROIAK (SEME INDARTSUA)

Ama-seme jentilek hamalau morroi zituzten, jentilak hauek ere. Behin batean, amak semeari morroienezako bazkaria eman zion. Semeak, benetako jentil indartsua, janaria hartu zuen eta bidean zihoala, hamalau morroien anoak berak jatea pentsatu zuen. Pentsatu eta jan. Morroiak gosetu egin ziren eta kexatu, beraietako bat zer gertatzen ote zen amari galdetzerara joanez. Andreak bazkaria semearekin bialdu zuela erantzun zion baina jentil morroiak berengana ez zela heldu erantzun zion.

Amak semeari galdetu zion janariarekin zer egin ote zuen eta honek, goseak aurkitzen zela eta berak jan zuela adierazi zion. Orduan, andreak jentilei janaria eman zien. Ondoren, seme jentila morroiek zenbat lan egin zuten ikustera hurbildu zen eta hamalau jentilek egun guztian egin zuten lana, berak bi ordutan egin zuen⁶¹.

EZKURRAKO JENTILAK

Ezkurrako beheko aldean, Errotalde izeneko parajea aurkitzen diren zuloetan jentilak bizi ziren. Egunez zulo hauetan gordetzen ziren eta gauez, jan bila ateratzen ziren, lapurreta egitera. Noizbehinka eguzkitan ageri ziren binaka elkarri burua garbitzen.

Etxeetan bizi ziren familiak oheratzean, tximinitik barrena sukaldera sartzten ziren eta, batez ere, umeentzat prestaturiko ahia jaten zuten.

Baina gau haietako batean, etxeoandre bat konturatu zen zer gertatzen zen eta zartagian zeukan olio frijitua lapur haietako bati aurpegira bota zion. Jentila bere bizi guztirako markatuta geratu zen.

59. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 9.

60. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 16.

61. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 16.

Jentil honen aurpegia ikusirik, besteak haserretu egin ziren eta gaizto bihurtu ziren. Aurpegia erretako etxe hartara gauzez itzuli ziren, baina oraingoan sarrerako atea jo zuten eta beren esku-marka bat bertan utzi zuten. Etxe horren izena Amarrandegia da.

Beste leienda bat, izenburu berdinekoa, Euskal pentsamendu majikoa izeneko nire liburuan agertzen da. Ipuin hartan Torrañea izeneko baserriaren sarrerako atean jentil baten eskuaztarrena luzaro ageri zen⁶².

MARTIN-TXIKI JENTILEKIN HARREMANETAN

San Martin maiz azaltzen da elezahar edo leiendetan. Jose Migel Barandiaranek, besteak beste, jasoak ditu han-hemenka San Martin Txikiren gorabeherak basajaun batekin edo besterekiko harremanean.

Oraingo ipuin hau Leitzan kokatzen da eta nire berriemailearen arabera honela da.

Jentilek bakarrik zekiten artoa ereiten eta Martin Txiki zen haiekin tratatzen zuen bakarra. Martin Txikik esan zion jentilei arto-pila baten gainetik salto egin baietz ala ezetz apustu egin behar zutela. Apustu hau egiteko Martin Txikik abarka handi batzuk jantzi zituen.

Jentilak salto egin zuen arto-pilaren gainetik eta Martin Txiki, berriz, arto gainean gelditu zen, abarkak artalez beterik.

Salto egin ondoren, Martin Txikik alde egin zuen, azkar asko, eta jentilak hori ikustean honela oihu egin zion: *Hazia badaramak, baina noiz ereiten den ez dakik*. Eta hori esan orduko aizkora bota zion, baina ez zuen Martin Txiki jotzen asmatu, gaztain-arbola bat jo baitzuen.

Martin Txiki etxeratu zen, hazia bazuen baina ez zekien noiz erein behar zen. Orduan pentsatu zuen andre zahar jentil bat ezagutzen zuela eta hark esango ziola. Martin Txikik bere mutil bat bidali zuen andre jentil honengana, artoa noiz ereiten zen galdetzeko, baina andreak ez zion argitasunik eman, marmarrean geratu zen. Mutila etxetik atera zen baina ez zuen alde egin, zelatan jarri zen leiho ondoan eta hara zer entzun zion andre zaharrari:

Mutil eroa, saririk gabe jakin nahi huke artoa noiz ereiten den? San Isidrota ereiten baduk, artoa izango duk bai...

Mutil zelatariak hala entzun zuen eta hala jakin zuen Martin Txikik artoa noiz ereiten den. Orduan hasi omen ziren euskaldunak artoa ereiten.

Artoa bereganatu zuten baina ez zuten ehotzen asmatzen. Errotaren ardatza behin eta berriz erre egiten zitzairen, ez baitzekiten nolako ardatza egin behar zen.

62. Ezkurran, Migel Gastearena Escala, 72 urte. *Komenzanea* borda. 1992ko martxoak 3.

Berriz ere Martin Txiki jentilengana hurbildu eta hala adierazi zien: *Ez zeukagu errotarekin burukomin handirik, ondo ari gaituk errotarekin*. Orduan jentilek erantzun zioten: *Haltzarekin egindako ardatza jarriko zenuten eta*.

Horrela jakin zuten Euskal Herrian haltza zela ardatza egiteko behar bezalako zura⁶³.

HERRIKO MUTIL BATEK NESKA JENTIL BATEKIN HAURRA IZAN

Herriko mutil hatek neska jentil batekin haurra izan zuen, eta hori jakitean, apaizak esan zion mutilari, jentilari haurra kentzeko.

Jentilak lotan zeudela, mutilak haurra kendu zien, baina berehala konturatu ziren jentilak eta harrapatu nahian atzetik jarraitu zioten mutilari. Baina ez zuten nahia lortu eta mutilak ihes egin zien haur eta guzti. Orduan etxeko ateari puinala sartu zioten, jentilak ez baitziren etxeko sarreratik aurrera pasatzen⁶⁴.


EZKURRAKO JENTIL ETA SORGINAK NOLA BIDALI ZITUZTEN

Horretarako apaizak konjuroa egin behar izan zuen, eta jentil eta sorgin guztiek garrasi bizian alde egin zuten⁶⁵.

63. Leitzan, Migel Ramon Zabaleta Zabaleta, 88 urte. *Errezuma* baserria. 1992ko apirilak 12.

64. Ezkurran, Lazaro Gastiarena Telletxea, 82 urte. *Garaikoetxea* baserria. 1992ko maiatzak 13.

65. Ezkurran, Lazaro Gastiarena Telletxea, 82 urte. *Garaikoetxea* baserria. 1992ko maiatzak 13.



Eta beste agerpenak

GAU BATEAN HAZTEN ZEN ASTOA

Arantzan, Arruzpi izenarekin ezagutzen den lekuan, zubi txiki bat aurkitzen da eta Santiago Etxeberriak, Muniloz baserrian bizilekua zuenak, etxera bidean zihoan gau batean, aipatutako leku hartan, zubi ondoan, non ikusten duen, bapatean, asto txiki bat.

Santiago Etxeberriak asto gainean jarri eta etxeruntz jarraitu zuen; baina astoa gero eta handiagoa bihurtzen zen eta honela Muniloz atarira heldu arte. Hemen, Etxeberriak asto erraldoia utzi egin zuen. Asto erraldoia berehala ezkutatu zen, arrastorik utzi gabe⁶⁶.

ARIMA ERRATUA ELIZAKO SEPULTURA GAINEAN ARGIZARIA JARTZEKO ESKATUZ


Bedaioko Larrañeta baserriko gizona, etxera ilunabarrera joaten zen eta bidean aurrez-aurre, hildako baten arima jartzen zitzaion. Baserritarrak galdeztzen zion behin eta berriz zer behar edo nahi zuen; baina galderak erantzunik ez zuen izaten. Orduan gizonak apaizarengana jo zuen zer gertatzen zitzaion esanez. Entzun ondoren, apaizak adierazi zion hurrengoan arima erratua azaltzen zitzaionean zuka ez hitz egiteko, hika baizik.

Iluntzea heldu zen eta Larrañetako gizona etxeruntz, baita bere aurrean hildakoaren arima agertu ere. Hau ikusirik, baserritarrak honela galdetu zion: *Zer falta duk edo zer beharrean hago?* eta erantzun hau jaso zuen: *Ni halako nauk –baserritarraren sendiko bat– nik ofrezitu nian libra bat argizari elizako neure sepultura gainean erretzeko eta hura erre zain negok zerura joateko.*

Argizaria berehala behar den lekuan jarri eta piztu zuten eta honela arima betiko ezkutatu zen⁶⁷.

66. Irunen, Paskual Fagoaga Altamira, 64 urte. *Arantzako Sazaia-enean*. 1990eko abenduak 31.

67. Amezketan, Jose Urtaza Zangitu, 66 urte. *Etxetxo baserria*. 1991ko maiatzak 1.



ARIMA ERRATUA UR BEDEINKATUA EMATEN DUEN ESKU BEZALA AGERTU

Bedaioke andre zahar bat, eliza ondoan bizi zen eta mezatara egunero joaten zen. Zimiterioan ur bedeinkatu-ontzia zegoen eta gure andre honek eskua luzatzen zuenean aipatutako ontzi honetara, hemen beste esku bat agertzen zen eta ura eman. Hau behin eta berriz, elizako sarreran eta irteeran. Gauzak honela, egun batean, esku misterioitsu honi begira, andreak galdera hau egin zion: *Zer nahi duzu?* eta erantzun hau entzun zuen: *«Nire izenean meza bat ateratzearen faltan aurkitzen naiz zerura joateko.*

Meza atera zitzaion eta ondoren, andre hau elizako irteeran ur bedeinkatua hartzera joan zenean, beste esku batek andrearena hartu eta estutuz honela esan zion: *Zeruan aurkitzen naiz eta zure heriotzaren orduan ez naiz ahaztuko. Zuretzat ere ez da laguntzarik falta izango*⁶⁸.

DEIA EGITEN DUEN ESKU BATEK ARIMA ERRATU BATEN IZATEA ADIERAZTEN DU

Erretore etxean, erretoreari esku bat azaltzen zitzaion berarengana joateko deika. Aurreneko egunetan, ikarak ez zion uzten eskuaren ondora hurbiltzen; baina egun batean galdetu zion zer nahi zuen eta eskuari segitzeko erantzun zion. Elizara eraman zuen eta eliza barruan, sakristiara. Hemen, eskua bakarrik agertzen zuenak, bere izenean meza bat atera behar zuela esan zion. Apaizak meza eman zuen eta eskua apaiz bihurtu zen, urte asko lehenago hildako apaiz bat, honela esanez: *Orain zerura noa, meza baten faltan aurkitzen bainintzen*⁶⁹.

ANDRE BITXI BATEN JOKAERA ULERGAITZA

Felipe Saralegi zen nire berriemailearen berraitona, Amezketako Larremendi baserrian bizilekua zuena eta nekazaritza-artzantzan ibiltzeaz gainera, aizkolari bezala ere kirol-probatan partaide ezaguna izaten zen.

Saio-aldiak hiru edo lau lagunek isilean eta gauez egiten zituzten, Txindoki izenez ezagutzen den mendiaren azpialdean aurkitzen den Urdanzuloko pagadi batean. Leku honetara bidean, Larraitz pasa ondoren, emakume bat jartzen zitzaien aurrean, buruko painelua kendu eta jarri eginez, behin eta berriz.

Gizonak korrika abiatzen ziren andre haren atzetik baina beti alferrik; emakumea ezin harrapatu, beti begien aurrean, paineluarekin jolasten bezala.

68. Amezketan, Jose Urtaza Zangitu, 66 urte. *Etxetxo* baserria. 1991ko maiatzak 1.

69. Amezketan, Kontxi Altuna Garmendia, 59 urte. *Garaikoetxea* etxea. 1991ko maiatzak 5.

Urdanzuloko pagadira iristearekin, bapatean andrea ezkutatu egiten zen, arrastorik utzi gabe⁷⁰.

ESTRELLA ORTZADARRA

Goizuetako herrian, adineko pertsonek, estrella izenarekin ezagutzen dute ortzadarra. Estrella honek, edozein errekatana ura edaten du eta desagertu egiten da. Ondoren, euri-tankeran itzultzen da⁷¹.

SAN MIGEL AINGERUA LAPURTU

Nafarroan, aita-seme batzuek San Migel aingeruaren irudia lapurtzea pentsatu zuten. Beren nahia lortzeko, lehenengo semea sartu zen elizara baina eliza dardarka hasi zen eta semeak, beldurtuta, kanpora alde egin zuen. Orduan aitak zera esan zion: *Ikaratu egiten al haiz? Martxa ederra zeukeat lapurreta egiteko* eta hau esanaz elizara sartu zen. Aingerua lapurtu eta ihesi hastearekin batera, eliz kanpaiak bere kasa jotzen hasi ziren. Inguruko jendea zerbait gertatzen zela konturatu zen eta aingerua lapurtu zutela ikusi zuten.

Lapur bila hasi zen jendea eta Frantzia aldera alde egin zuelako arrastoa aurkitu zuten. Lapurrek baso bat pasa behar zuten eta nafarrak gainean zituztela sumatu zutenean, aingerua zabor azpian ezkutatu eta aurrera jarraitu zuten. Hego-haize zakarra atera zen eta, orbela eta garoa eramanez, aingerua agerian geratu zen. Nafarrek hau ikusi eta bere lekura itzuli zuten. Lapurrak ere harrapatu zituzten, semea kartzelaratu eta aitari beso bat moztu zioten⁷².

BIRAOA

Bost lagun laian ari ziren eta talde hau bost-zohia izenez ezagutzen zen (Zohia laiatu behar den lur-saila deitzen zaio). Hauek edariz betetako txarro bat sagar-arbolaren adar batetik zintzilik zeukaten eta han ahaztuta utzi zuten. Etxeratu ziren eta hauetako bat txarroaren faltaz ohartu zen eta norbaitek lapurtu egin ziela pentsatuz, birao hau bota zuen: *Txarroa daukanari beso bat ihartuko ahal zaiol*


Gero, sagar arbolaren adar bat ihartu zela ikusi ahal izan zuten, txarroa bertan zintzilik zuela⁷³.

70. Amezketan, Jose Sagastume Saralegi, 71 urte. *Larremendi* baserria. 1991ko maiatzak 12.

71. Goizuetan, Maria Arozena Arozena, 98 urte. *Mitxelko* baserria. 1991ko otsailak 11.

72. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko ekainak 9.

73. Amezketan, Jose Arandia Rezola, 76 urte. *Jauregi Gorena* etxea. 1991ko maiatzak 26.



BIRAOA

Landeta izenez ezaguna zen ijitoa, asto mozten ibiltzen zena, Matximentako Endrio baserriko bizitza batetik deitu zuten bere ekintza betetzeko. Asto-mozten ari zela, ijitoak baserriko beste bizitzako nagusiari esan zion behin eta berriz, bere astoa ere mozketara ekartzeko, baina honek mozketara hura berak egiten zuela erantzun zion eta ez zuela inoren beharrik.

Hau entzutean, ijitoak astoa ekartzen ez bazion biraoa botako ziola adierazi zion eta bukaera txarra izango zuela. Handik denbora gutxira, nagusia bere astoarekin abiatu zen eta aldapa handi batera heldu zenean, astoa amildu eta berrogei bat metro bueltara ibili ondoren beheko bide batean gelditu zen akabatuta.

Handik egun batzuetara, astoa galdu zuen nekazaria ijitoarekin mintzatzeko hasi zen eta astoa galdu zuela adierazi zion. Lehen esandakoa gogoratuaz, aipatutako biraoa bota ote zuen galdetu zion. Ijitoak baietz erantzun zion eta biraoak indar gehiago izatearren horma baten gainera igota esan zuela. Baina gauzak ondo konpondu ziren, ijitoak astorik gabe gelditu zen Endrioko baserriarrari asto bat saldu baitzion⁷⁴.

GURUTZEA ETA PARTE TXARREKO AKERRA

Bedaion, Bedaio Bitarte izena daraman baserriko bizitza bateko aitonari, Manuel Gorostidi izenekoa, gaztea zela, andregaiarengana zihoan gau batean, aker handi bat jarri zitzaion aurrez aurre.

Egoera honetan, aipatutako Manuel Gorostidik bi atzamar gurutzatu zituen akerrari begiratzuz eta bapatean akerra desagertu egin zen⁷⁵.

MATEO TXISTU

Izen honekin ezagutzen dugun ipuina nahikoa ezaguna dugu. Berataz behin baino gehiagotan mintzatua naiz aldaketa batzuk direla eta. Aldaketa hauek han-hemenkako sustrai eta ardatzari eusten diote baina, hala ere, bere garrantzia dutela ezin uka, ipuinaren aberastasunari begiratzuz. Oraingo honetan, Amezketako artzain baten ahotik mintzatuko gara. Berak dioenez, artzain hau lekukoa izan dugu Mateo Txisturen ibilaldien barnean eta, alajaina!, hau ez da gutxi.

Mateo Txistu apaiza zen eta ehiztari porrokatua eta meza ematen ari zen batean, bere bi zakurren zaunkak entzuten zituen erbia salatuz. Apaizak alda-

74. Matximentan, Ignazio Maria Lasa Lasa, 64 urte. *Endrio* baserria. 1991ko abuztuak 18.

75. Bedaion, Frantzisko Jauregi Agirrezabala, 70 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1991ko urtarilak 22.

rea utzi zuen, eskopeta bat hartu eta bi zakurren laguntzarekin erbiaren atzetik abiatu zen.

Nire berriemailea –Inazio Ulazia Artano– oroitzen da, gau batez, bere aitona-arekin –Fermin Ulazia Garaialde– txabolaren barnean aurkitzen zirenean, ardien zarata arrunta ez zena entzun zutela. Artaldearen zintzarri soinu eta zalapartarekin, gure bi artzainak txabolatik atera ziren eta han entzun zituzten txistu doinu bat bere noizbehinkako isiltasunarekin eta zakur baten zaunka lodi eta zakarra eta bestearen zaunkaldi fina, denak gero eta ahulagoak, apaiza, anima erratua, urruntzen zihoan bezala, bere atsedetik gabeko ibilaldian⁷⁶.

HILDAKO AITONA BAT AZALDU AMETSETAN MEZA ESKE

Gauetz neska gazte bati ametsetan bere aitona zaharra agertzen zitzaion. Bilobak, ametsetan, galdetzen zion: *Aitona, zer nahi zenuke?* eta aitona honelako batean erantzun zion meza bat ateratzeko, purgatorioan aurkitzen zela eta meza baten beharrean zegoela zerura joateko.

Hurrengo egunean Bedaioko elizan, bilobak meza atera zion bost pezeta ordainduz. Biloba hark ametsetan gehiago ez zuen ikusi bere aitona⁷⁷.

AGOTEAK ETA MAIRUAK, EZKURRAN

Garai batean, Ezkurran baziren edo bizitzen ziren agoteak, Arizkungo Bozate auzotik etorriak.

Ezkurrako agoteak mezatara joaten ziren; honetarako, elizan sartzeko beren atea eta ur bedeinkatu-ontzia zituzten.

Beste Ezkurratarrak bezala, artzaintza eta nekazaritzatik bizi ziren. Agoteak nabaritzen ziren belarriak aurpegian erantsirik zituztelako. Bi agote ezkontzen baziren, beraien umea mairua zen⁷⁸.

USTELDU GABEKO HILDAKOA MEZA BATEN ESKEAN AGERTU

Nire berriemailearen berraitonaren seme bat hil zen. Ohiturazko elizkizunak egin ziren eta apaizak auzoa utzi eta alde egin zuen, beranduago hildakoaren izenean atera behar zituen meza guztiak atera gabe. Gauzak honela, urteak joan eta urteak etorri, halako batean ohartu ziren hildakoaren gorputza ez zela usteltzen.

76. Tolosan, Ignazio Ulazia Artano, 77 urte. Amezketako *Loiola* baserrian jaioa eta gaur egun Ibarako San Ignazio auzoan bizi dena. 1991ko apirilak 3.

77. Bedaion, Frantzisko Jauregi Agirrezabala, 70 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko urtarilak 26.

78. Ezkurran, Migel Gastearena Escala, 72 urte. *Komenzanea* borda. 1991ko martxoak 3.

Egun batean, bere ama elizan ur bedeinkatua hartzera zihoala, hildako semea agertu zitzaion, eta ur bedeinkatua emanez, esan zion meza baten beharrea aurkitzen zela zerura joateko.

Amak adierazi zion apaizari zer gertatzen zen, eta orduan apaizak aitortu zion hildakoaren izenean behar zituen meza guztiak eman gabe gelditu zela. Apaizak bere eginkizuna bete zuen. Hildakoaren izenean meza atera zuen une berean, ama elizatik ateratzera zihoala, berriro semea agertu zitzaion ur bedeinkatua eskura emanez eta honela adieraziaz: *Oraintxe zerura noa*⁷⁹.

BASERRITARRA ETA JAINKOA

Baserritar bat beti kexuka bizitzen zen, berarentzat beti eguraldi txarrak egiten zituelako. Honelako batean, Jainkoak esan zion nahi zuena eskatzeko, edo behar zuen bezalako eguraldia. Baserritarrak honela eskatu zion Jainkoari: *Gaur eguraldi ona, bihar euria, hurrengoan lainoa*.

Baserritarraren nahia beteaz urteak jarraitu zuen. Gero, Jainkoak galdetu zionean, *zer moduzko urtea izan duzu, ona ala txarra?* Baserritarrak erantzun zion: *Sekulan izan dudan txarrena, hemendik aurrera zuk zeuk egin ezazu nahi duzun bezalakoa*⁸⁰.

MUGARRIA BEHAR DEN LEKUTIK ATERATZEAGATIK

Nekazari batek mugarrria bere lekutik atera zuen. Gizon gaizkile hau hil zen eta zerura joaterik ez zeukan mugarrria bere tokira itzuli arte.

Honela, kalte egin zionaren aurrera azaldu zen mugarrria bizkarrean zuela esanez: *Non sar, non sar...*, eta besteak erantzun: *Ateratako tokian sar ezak*⁸¹.

MUGARRIA BERE ONERAKO ALDATZEAGATIK

Baserritar bat mugarriak bere aldera aldatzen ibiltzen omen zen. Gizon hau hil zen eta mugarriak bizkarrean zituela batetik bestera mugitzen zen, eta: *Hau karga, hau karga* oihuka. Deiar dar hau entzutearekin, bapatean bere inguruko guztiak beldurturik benetan, beraien etxeetan gordetzen ziren. Baina, halako batean, *Hau karga, hau karga* entzutean, bat ausartu zen honela erantzutera: *Hartutako lekuan egin ezak deskarga*.

79. Bedaion, Eugenio Sarasola Zubillaga, 64 urte. *Zumizketa* baserria. 1991ko maiatzak 1.

80. Bedaion, Ramon Zubeldia Jauregi, 77 urte. *Zumizketa* baserria. 1991ko maiatzak 1.

81. Beizaman, Prudentzio Aranburu Esnaola, 73 urte. *Zabale* baserria. 1991ko irailak 29.

Behar zen lekuetan mugarriak jartzearekin batera, bere inguruetan ikaragarritzko lurak erori omen ziren⁸².

UITZIKO SANTA ENGRAZI ERMITA DELA ETA

Uitzin, Santa Engraziren ermita Arpelats izeneko mendian aurkitzen da baina hasieran, uitziarrek Musulu mendian egitea nahi zuten, herriaren bistan egongo zelako.

Musulura harriak eramaten hasi ziren baina egunez eramandakoak gauzez desagertu egiten ziren, harri haiek Arpelatsen azalduaz.

Gauzak honela, bi uitziar Musulura zelatara joan ziren eta pago baten gainean jarri. Orduan ikusi zuten nola zetozen Santa Engrazia eta San Isidro idi pare batekin, bata zuria eta bestea gorria. Uitziar zelatariek beraietako bati buruz Santa Engraziak idi gorriari esaten ziona entzun zuten: *Aida, idi gorria! Ateraiok zelatan dagoen horri ezkerreko begia!*

Hau entzutean, zelatariek ikaratuta alde egin zuten, eta orduan herriak ikusi zuen, Santa Engraziaren nahia ermita Arpelatsen egitea zela.

Gauzak honela, Etxeberria baserriko artzainak txerri gorri baten antzekoa ikusi zuen ardi eta sasi artean eta honela esan zion: *Uxta, txerri gorria!* eta txerri itxurakoak erantzun: *Ni ez naiz txerri gorria, ni naiz Santa Engrazi urre gorria.*

Ipuinaren amaiera hau zerbait aldatuta ikus dezakegu nire Euskal pentsamendu majikoa izeneko liburuan. Nire ustez, hemen idatzi dugunaren osagarri interesgarria dugu.

Jarraipenean emango dugun abestiaren idatzia ez da gaur goizekoa, egiaztatu dezakegunez. Santa Engrazi bezperan abesten da Uitziko eliz parrokiari eta Santa Engrazi egunean bere izeneko ermitan⁸³.

Santa Engraziaren bersoac

Coroa
Engracia birgiña gloriosa
Martir santa Jaunarena
Gutaz eguin zu otoiz ona
Jesucristoren esposa.

1

Arinceko gure penac
Tristeon consolagarri
Ciñan Portugaldik etorri
Ala nayerik Ceru onac
Gutaz, etc.

82. Albiasun, Jose Egaña Mugika, 60 urte. *Matxinea* baserria. 1989ko azaroak 1.

83. Uitzin, Trinidad Rekalde Errazkin, 80 urte. *Buztiñea* baserria. 1991ko azaroak 3.

2

Daciano gogortuac
Dio zu azotatzeko
Bestela adoraceko
Arren Jaungoiko falsoa
Baña joh Santa valerosa!
Jauna zan zure aitormena.
Gutaz, etc.

3

Calez-cale arraztaceko
Ecusirik ain firme zu
Tiranoak aguincen du
Ala zu icaraceko
Zure orduko defensa
Zan esku Jaungoikoarena.
Gutaz, etc.

4

Esandaco tormentuaz
Ecinic renegarazi
Bular bat zizun ebaqui
Ala zu galceko usteaz
Baña zu len bezain lasa
Jauna zan zure aldamena.
Gutaz, etc.

5

Daciano arrituak
Zure paque soseguaz
Josi dedilla ilce gogorrez
Dio zure buru santua
Ala eguin ciñan gloriosa
Andik da zure fortuna.
Gutaz, etc.

6

Zure eztalaye lagunak
Ain portiza ekusiaz
Etsicen due biziaz
Ciran bezala zaldunac
Amparoa eta defensa
Cerutik zan gucion
Gutaz, etc.

7

Nork daki cer demboratik
Gure erriak du honrazen
Zure imagiña Arpelasen
Jaungoiko onak ala naik
Zu cera Santa Gloriosa
Gure amparoa ecin esana.
Gutaz, etc.

8

Gure valle Larraungoa
Bere gaiz eta eztu penetan
Zu gana die lasterkan
Birgiña gure gozoa
Izan zaitea defenza
Beraz lur noble onetan.
Gutaz, etc.

9

Euritean eguzquia
Leortean bendebala
Guction amparoa ta itzala
Cera birgiña egoquia
Sendagarri poderosa
Cera gure min guciena.
Gutaz, etc.

10

Terciana cuartanetan
Escua dezu aguercen
Ascok zaitu bisitacen
Argatik zure Ermitan
Cembati Santa Gloriosa
Emandiozu osasuna.
Gutaz, etc.

11

Princesa Portugalkoa
Contu arren gure animez
Sutua gu galdu nayez
Dago etsay infernukoa
Baña bagauteque lasa
Bazaitugu zu laguna.
Gutaz, etc.

MURUMENDIKO DAMA EGURALDI-ALDAKETAREN ADIERAZLE

Murumendiko Dama sugarretan eta txinpartak boteaz Murumenditik Anbotora eta hemendik Murumendira, ibiltzen zen. Murumenditik Anbotorako bidean zihoanean, eguraldi ona zetorrela adierazten zuen eta Anbototik Murumendiruntz ikusten zenean, ekaitza zetorren.

Nire berriemailearen adiskide bat eguraldi onarekin ehizara joan zen batean, Murumendiko Dama Anbototik bere Murumendiko egonlekura joaten ikusi zuen eta handik bi ordutara, eguraldia benetan txartu egin zitzaion⁸⁴.

84. Matximentan, Ignazio Odriozola Lasa, 69 urte. *Igartzola* baserria. 1991ko abuztuak 18.



LUKAS AROTZA ETA ZUBIA

Arribeko herrian zubi bat egin nahi zuten, eta honetarako Iruñetik gizon trebe izenekoak ekarri zituzten; baina hauek behin eta berriz adierazi zuten ezinezko lana zela.

Hau jakinik, Arribeko herria bildu zen eta oroitu ziren Tolosako Bedaio auzoan bazela arotz on bat, Lukas izenekoa, Zumizketa deritzon baserri batean bizilekua zuena.

Arribetik bere nahia agertuz, Lukas arotzarengana joan ziren. Eskea eta nahia arotzak entzun ondoren, zubia egingo zuela esan zuen, eta bere lana burutzeko Arribera joan zen. Lehenengo, metro batekin behar zituen neurriak hartu zituen; hau egin ondoren gizon talde bat hartu eta egurra botatzera joan ziren, Lukasek berarekin zerra eta aizkora eramanez.

Bota behar zituzten zuhaitzak haritzak ziren, eta mendian bertan Lukasek egurrak konpondu edo landu zituen.

Ondoren idiekin arrastaka behar den lekuraino egurrak eraman eta berehala, akatsik gabe, zubia bakarrik egin zuen, lehen inork egin ez zuen zubia.

Zubia bukatu zuenean, arotzak honela esan zuen: *Ri-rau, Lukasek egina dik hau!*

Lukas hau, auzoko taberna bateko eskaileretan amilduta hil zen⁸⁵.

GAUEZ EZ ZAIKIO EMAN BEHAR HIRU BIRA ELIZARI

Uitziko Musulu mendira hiru neskatxa gauez joan ziren eta apustu bat egin zuten, hiru buelta bai edo ez eman Santa Engraziaren elizatzuari. Orduan, neska haietako bat, Katalin izenekoa, Musulu menditik Arpelats izena duen mendira joan zen, hemen aurkitzen baita Santa Engraziaren ermita.

Ermita honi hiru buelta ematen hasi zen eta lehenengoa amaitu ondoren, bere lagunek entzun zuten nola esan zuen *bat*. Handik alditxo batera, *bi* entzun zuten baina gehiago deus ez zuten entzun. Berehala oihu handi bat entzun zuten hau esanez: *Eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat eta zu, Katalin, guretzat*⁸⁶.

85. Bedaion, Ramon Zubeldia Jauregi, 77 urte. *Zumizketa* baserria. 1992ko apirilak 26.

86. Uitzin, Josefina Zabala Lasarte, 31 urte. *Buztiñea* baserria. 1991ko azaroak 3.

GAUEZ EZ ZAIZKIO EMAN BEHAR HIRU BIRA ELIZARI

Gaua zen lagun batzuk tabernan elkarrizketan aurkitzen zirenean eta apustua egin zuten nork elizari hiru buelta eman. Botila bat ardo jokatu zuten eta haietako bat ausartu zen elizari hiru buelta ematera. Hiru buelta eman zituen eta baita apustua irabazi ere baina irabazle honek adierazi zuen, ifernura joateko kondenatua gelditu zela, ifernura joan beharrean aurkitzen zela.

Harrez gero oso ikaratuta bizi zen. Berriz elizari hiru buelta emateko esaten zioten bere lagunak baina ezezkoa erantzuten zuen beti. Bere lagunak ere ez ziren behin ere gauzez elizari hiru buelta ematera ausartu⁸⁷.

ARTZAINTXOAREN EGUNAK

Ipuin hau zozomikoteak izenez ezagunagoa dugu gure artean. Zozomikoteak izen arrunta dugu eta zozomikotez mintzatu izan naiz, baina izenaren eta aldakuntza batzuen aberastasunari begiratuz, interesgarria iruditzen zait artzaintxoaren berri hemen ematea.

Artzaintxoaren egunak martxoko azken hiru egunak eta apirileko lehen egun t'erdia dira. Artzain begibakar bat oso harroa zen. Martxoa eguraldi txarrarekin zihoan eta honela amaitzeko itxura zeraman. Askotan bezala *Martxoa ardi zaharraren mazona* zen eta artzainak, esker txarra agerturik, honela esan zion:

Ai Martxo, Martxo, ematen diat esker gaizto. Nire ardi ahulenak zazpi estatu egiten dizkik salto.

Hau entzunik Martxoak Apirilari esan zion:

Apirila biribila, emaitzidak egun t'erdia, kendu behar zizkioat artzain horri ehun ardi eta begi hori.

Apirilak eman zion Martxoari eskatutakoa, hots, eguraldi txarra, euria ugari. Artzainari eraman zizkion urak ehun ardi eta ahari bat gelditu zitzaion erreka ondoko sasi edo sastraka artean, adarrak bertan trabatuta. Artzainak aharia ikusi zuen eta baita bizkarrean hartu eta etxera eraman ere. Etxean, bizkarretik lurrera jaisterakoan, ahariak mugimendu zakar batekin begia atera zion artzainari eta hau itsututa gelditu zen. Bere harrokeriak ikusmena eta artaldea galtzera eraman zuen⁸⁸.

87. Allin, Ignazio Zabaleta Rekalde, 58 urte. *Arretxe* etxea. 1991ko azaroak 1.

88. Garinen (Beasaingo auzoa), Jose Ignazio Lasa Odriozola, 67 urte. *Garin Arrese* etxea. 1991ko abenduak 8.

HILTZAILEA EZAGUTZEKO

Hiltzaile bat zein zen ezagutzeko, etxean kandela edo atxa bat piztu zuten honela esanez: *Hiltzailea azaltzeagatik atxa hau pizten dut*, eta hau erre ahala, hiltzailea ere ihartuz zihoan.

Honek, bere burua galtzen zihoala ikusirik, bere erru larria aitortu zuen. Atxa piztuaren indarrak aitorrarazi zion erruduna zela oso gaizki aurkitzen zenean. Atxa erretzearekin batera gizona hil egin zen⁸⁹.

ZERURA JOATEKO MEZA BATEN BEHARREAN AURKITZEN ZENA

Ataungo gazte bat, zuhaitzak botatzen ibiltzen zena, hauetako batek azpian hartu eta hil egin zen. Gerora, gazte hau bere amari agertu zitzaion San Migelen meza bat ateratzeko esanez, meza horren beharrean aurkitzen zela eta, zerura joateko⁹⁰.

ARIMA ERRATUA

Amezketako Loiola baserriko neska bat eskolara joaten zen eta bidean gauza harrigarri bat ateratzen zitzaion, ezer esaten ez ziona. Hau behin eta berriz. Etxean adierazten zuen gertatzen zitzaiona baina ez zuten aintzakotzat hartzen.

Honela, egun batean, neska ohean zegoela, gauza harrigarri hark ohe gainean artaburuak jarri zituen eta etxekoek sinistu zuten zerbait bazela. Neskari, gauza harrigarria bere aurrean sentitzen bazuen zer nahi ote zuen galdetzeko esan zioten. Neskak agindu hau bete zuen eta gauza harrigarriak zerura joateko meza baten beharrean aurkitzen zela erantzun zion. Meza atera eta entzun zuten etxe hartako guztiek. Neska elizara sartzean anima erratuak –orain honela dei baitaiteke– ur bedeinkatua eman zion eta bere aurrean eduki zuen ia elizatik atera arte⁹¹.

GAUEKO OILARRAREN KUKURRUKUA ETXEKO BATEN ARIMA ERRATUAREN ADIERAZLE

Nire berriemailearen baserriko oilar batek kukurrukua gauez egiten bazuen, familiako hildako bat zerura joateko errosario baten beharrean aurkitzen zela adierazten zuen.

89. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 58 urte. *Arretxe* baserria. 1991ko maiatzak 26.

90. Garinen, Pakita Barandiaran Zurutuza, 61 urte. *Garin* Arrese etxea. 1991ko abenduak 8.

91. Ugarten (Amezketako auzoa), Segunda Artano Zubiarrain, 68 urte. 1991ko maiatzak 29.

Aia herriko Erreista baserrian, nire berriemailearen jaio eta bizilekuan, errosarioa errezatzen zuten aipatutako gertaera honetan, horretarako, eta honela beharrezkoa baldin bazen, amonak oheratuak jaikiaraziz. Sinismen eta ohitura hau nire berriemaileak ezagutu eta bizi izandakoa da⁹².

OSTIRAL SANTU EGUNEAN ARKUMEA JATEAGATIK

Baserritarrak, Ostegun Santu egunean laian aritzen ziren goizeko hamarrrak arte. Hamarretan Jesukristo kartzelan sartzen zuten, eta baserritar guztiek, kanpai tristeak entzunez, lanari uzten zioten.

Ostiral Santu egunean bijilia eta baraua dira, tabernan jokorik ez zen izaten, eta arratsaldeko hiruretan elizan egiten ziren kalbarioetara joaten zen herria, kanpai tristea berriro entzunez.

Ostiral Santu egun batean, Illarratzuko mikeleteek Jainkoari desafioa egin zioten, honela esanez: *Arkumea jateko beldurrez?* Eta haietako batek arkumea jan zuen eta bertan hilda beltz-beltz geratu zen⁹³.

KORPUS KRISTI EGUNEAN EZ DA ARDI-MOZKETARIK EGIN BEHAR

Nire berriemailearen aitona, Inazio Zubeldia Zubeldia izenekoa, Elizetxe baserrian bizi zena, ardi-mozte beharrean gertatzen zen, eta lan honi Korpus Kristi egunean ekin zion.

Artaldeko ardiak moztu zituenean, haietako bat, ederrena, hankak askatu zizkionean, bapatean beltz-beltz eginda geratu zen. Artzainak hau honela ikusirik, sekulan Korpus Kristi egunean ardirik ez zuela moztuko esan zuen⁹⁴.

ZIGORRARI ALDE EGITEKO

Urte guztiko ostiral eta igandeetan, artalderik ez da mendi batetik bestera aldatu behar. Ostiraletan, Jesukristoren heriotza oroitu eta errespetatuz; igandeetan, elizaren lanik ez egiteko aginduari jarraituz⁹⁵.

92. Aian, Juan Aranberri Azkue, 69 urte. *Erreista* baserria. 1991ko urriak 6.

93. Bedaion, Juan Zubeldia Zubeldia, 78 urte. *Elizetxe* baserria. 1992ko maiatzak 10.

94. Bedaion, Juan Zubeldia Zubeldia, 78 urte. *Elizetxe* baserria. 1992ko maiatzak 10.

95. Berastegin, Frantzisko Saizar Etxeberria, 58 urte. *Borda Txuri* baserria. 1992ko maiatzak 22.

ARIMA BAT ZERBAITEN BEHARREAN AURKITZEN ZEN

Nire berriemailearen anaia, Martin Rekalde Errazkin, ohera beldurturik joaten zen, petxuan zama handi bat jartzen baitzitzaion lehenbiziko loa hartu eta berehalaxe.

Gertatzen zitzaiona lagunei adierazi zien eta andre baserritar batek, Osanbelako bordan bizi zenak, berez leitzarra izan arren, honela adierazi zion:

Zama hori arima bat duzu eta promesa bat mundu honetan egindakoa eta bete gabe utzia. Honelakoetan, gure herrian ohitura handia da San Migelera joan, konfesatu, Jauna hartu eta meza eskaintzea arima horren alde. Gauza horiek honela konpontzen dira.

Martin Rekaldek egin zuen andre haren esana eta gaueko estutasuna betiko joan zitzaion⁹⁶.

AMEZKETAN AMA BIRJINA AZALDU OTE ZEN

Amezketako Loidi baserriko neska koskor bat behizain herri bertako Santuene mendira bidaltzen zuten eta mendi honetan emakume polit bat azaltzen zitzaion eta ilea orrazten zion neskari.


Neska koskor hau etxeratzen zenean, bere gurasoek galdetzen zioten ilea nork orrazten zion. Neskak emakume polit batek orrazten ziola. Etxekoek emakume hark zer esaten ote zion ere galdetzen zioten eta neskak aterpe txiki bat mendian egiteko eskatzen ziola erantzun.

Etxekoek ez zuten aintzakotzat hartzen nahi hori. Jarraian, behin eta berriz neska behizain mendira joaten zen eta berriz emakume polit hori agertzen zen eta artzaintxo orraztu, ohitura zuen bezala.

Honelako batean emakume agertzaile honek bere nahia etxean adierazi ote zuen galdetu zion. Neskak, bere sendiari bi aldiz esan ondoren ez zutela aintzakotzat hartzen esan zion. Hau entzunik, emakume polit hark neskari esan zion: *Zure etxekoek ez dute sinisten ikusi gabe; ikusita bai. Ikusita dute fedea, ikusi gabe ez.* Nire berriemaileak entzuna die bere aurrekoei Santuene mendian neska koskor hari agertzen zitzaion emakume polit hura, gero Arantzazun agertutako Ama Birjina zela⁹⁷.

96. Uitzin, Trinidad Rekalde Errazkin, 80 urte. *Buztīnea* baserria. 1991ko azaroak 10.

97. Amezketan, Joakin Balerdi Saralegi, 59 urte. *Arretxe* baserria. 1992ko urtarrilak 12.



MEZA BEHARREAN ZEGOEN DIFUNTUA

Amezketako Ezkolborro baserriko gizon bat arbitara joaten zen eta sororan ezaguna zuen hildako bat bere aurrean jartzen zitzaion. Nekazari honek apai-zari esan zion gertatzen zitzaiona eta apaizak entzun ondoren, azaltzen zitzaionaren atzetik zortzi bat pausotara jartzeko eta zer behar ote zuen galdetzeko gomendatu zion. Orduan, beste munduko hark adierazi zion eskainitako meza bat atera gabe zuela hil zela eta meza haren beharrean aurkitzen zela purgatorioan. Mesedez eskatzen zuela meza hura ateratzeko. Ezkolborroko gizonak hildakoaren nahia bete zuen eta bera izan zen meza honen entzule. Ondoren, elizatik ateratzean, beste mundukoa ikusi zuen eta honek eskura ur bedeinkatua eman zion, aldi berean esanez: *Niri zerua iritsi didazu eta zuretzat ez da faltako.*

Antzeko ipuin ugari samar daude; nire Euskal pentsamendu majikoa izeneko liburuan ere aurkitzen dira batzuk⁹⁸.

SAN MIGEL MENDIKO HERENSUGEA, BERE BIZIMODUA ETA HERIOTZAREN AURREKO GORABEHERAK

San Migel mendira herensuge bat etortzen zen eta Nafarroan, Sakana izenez ezagutzen den lurraldeko herriak, egunero aipatutako mendi honetara norbait bidaltzera behartuak aurkitzen ziren, herensugeak jan edo irentsi zezan. Honetarako, herri hauetako biztanleen artean zozketa egiten zuten eta egun haietako batean, sendi bateko aitari suertatu zitzaion herensugearengana joatea. Baina hau honela, bere alabak esan zion: *Aita, zure ordeztzeronero nek joan behar dut, nahiago baitut ni irentsi edo jatea zu baino.*

Emakumezko hau joan zen San Migel mendira eta han herensugea noiz agertuko zain jarri. Baina herensugearen ordeztzeronero Teodosio azaldu zitzaion bere damutasunezko katea arrastaka zeramala. Kate soinuak Sakanako gaztea beldurtu zuen herensugea zela pentsatuaz eta hau ikusirik, Teodosio honela mintzatu zitzaion: *Egon, egon lasai neskatoa, ni ere mundukoa naiz eta Teodosiok berehala eskatu zion burua garbitzeko, buruko hazkura kentzeko.*

Neska Teodosioren nahia betetzen ari zela herensugea etorri zen. Hau ikusirik, Teodosiok neskatoari esan zion:

Egon, egon pixka bat, nik burrukatu behar dut hori.

Baina burruka hartan herensugea zihoan irabazle eta orduan Teodosiok deiadar egin zuen: *Migel, nirekin aliatu.* Hau entzutean, Jaungoikoak Migeli esan zion:

Mundura deitzen zaituzte, Migel eta Migelek erantzun zion: Ni Berorrekin joatekotan. Orduan, Jaungoikoak Migeli esan zion: Non eramango nauk, Migel? eta Migelek erantzun zion: Buruaren gainean.

98. Josefa Antonia Agirrezabala, 66 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko urtarrilaren 22.

Migelek Jaungoikoa buru gainean eraman eta ezpataren aurreneko danbadarekin herensugea hil zuen eta berehala ezpataz Teodosioren katea ebaki zuen. Teodosio aske geratu zen eta bere erru-nekea bukatu egin zitzaion⁹⁹.

SUGARRA MUGIMENDUAN HILDAKOAREN ETXERA

Bedaioiko baserri batean, gaur egun hutsa aurkitzen den baserrian, gizon bat hil zen eta auzokoak, ohitura zahar bati jarraituz, errosarioa gauetz erreza-tzera joan ziren. Betebehar anaikor hau amaitu ondoren, etxerantz zihoazela sugar luze tankerako bat beraien gainetik igaro eta hildakoaren baserrian sartzen zela ikusi zuten. Bidean zihoazen guztiak, haien artean nire berriemailea, harrituta eta beldurtuta gelditu ziren.

Deskribatutako hau orain dela berrogei bat urte gertatua da¹⁰⁰.

ZEZEN GORRIAK LEIZEZULO BATEAN

Amezketako talde bat, nire berriemailearen aitona osaba tartean aurkitzen zela, San Migel bidean zihoan eta Auriko leize parera heldu zenean, bakoitzak bere zigarroa pizteari ekin zion, poxpoloak aipatutako leize zulora boteaz, honela esanez: *Tira zezen gorriak, zuek ere zezen gorriak; erre ezazue zeuek ere* Berehala leize zulo hartan berebiziko iskanbila sortu zen, ganadua-ren makakorro artean.

Ipuin honek lurpeko mitologiara garamatza. Bi idi gorri izenez aurkitzen dira bi ipuin nire Euskal pentsamendu majikoa izena daraman liburuan. Bata Bedaio bertako bati gertatua, nik Amezketako Ugarten jaso nuen berria, eta bestea ere herri honetako auzo berean entzuna. Honela bada, idi eta zezen gorrien ipuin hauetaz lurralde honetan mintzatu zaizkit¹⁰¹.

ZEZEN GORRIAK BASOAN


Bedaion, Jazku Goiko baserriko gizona, artzantzan ibiltzen zena, auzo bereko Sahatsa izenez ezagutzen den mendira joan zen eta berak uste baino lehen ilundu eta gaua etorri zitzaion.

Etxerantz abiatu zenean, zezen gorri batzuk azaldu zitzaizkion eta arbola edo zuhaitz guztiak txikitzen hasi ziren zezenak.

99. Albiasun, Buenaventura Argaña Mugika, 66 urte. *Matxinea* baserria. 1989ko azaroak 1.

100. Bedaion, Frantziska Iturrioz Zubillaga, 54 urte. *Gurbille Txiki* baserria. 1992ko urtarri-lak 15.

101. Tolosan, Ignazio Ulazia Artano, 77 urte. 1991ko apirilak 3.



Artzaina estutu egin zen eta buruko ileak tente-tente zituela iritsi zen etxera. Jazku Goikoko gizon hau benetan larrituta aurkitzen zen eta bere etxekoek zer gertatzen ote zitzaion galdetu ziotenean, artzainak Sahats mendian dena txikitzen zuten zezen gorri batzuk ikusi zituela adierazi zien. Bere sendikoek zezenek ezin dituztela arbolak txikitu erantzun zioten. Hau entzutean, artzainaren erantzuna honelakoa izan zen: bihar joango gara ikustera. Honela egin zuten; hurrengo egunean Sahatsa mendira joan ziren eta beti bezala aurkitu zuten; arbola eta zuhaitzak bere lekuan eta zezenen arrastorik ez. Jazku Goikoko artzaina benetan harrিতuta gelditu zen.

Ipuin honek lurpeko mitologiara hurbiltzen gaitu¹⁰².

PARTE TXARREKO ZAKURRA

Nire berriemailea den Frantzisko Jauregi, Bedaio Bitarte baserrikoa, bere izen bereko osabarengana golde lana egitera joan zen. Hauek, osaba-ilobak, Sagardotegi izeneko etxean bildu ziren.

Beren lan saioa bukatu ondoren, aipatutako etxe honetan gelditu ziren afaltzen eta gauerdia inguruan etxerantz abiatu ziren. Idi pare baten atzetik jarrita, ordu erdiko bidea zeramatzela, bidegurutze batera iritsi ziren eta nire berriemaileak bere ondoan pasatzen benetako zakur oso handia ikusi zuen, astoaren antzekoa.

Orduan, ikusleak bere osabari galdetu zion: *Ikusi al duzu hori?* Erantzun zion: *Nik ez, zer ikusi duk? Zakur handi bat, zuk ez al duzu ikusi?* galdetu zion ilobak osabari. *Nik ez*, hau izan zen osabaren erantzuna.

Osaba-ilobek bidegurutze batean banatu behar zuten, bakoitzak bere etxerako bidea jarraituz.

Zakurra ikusi zuenari beldurra hezurretaraino sartu zitzaion eta lurretik hiru harri hartu zituen. Bere etxe ingurura iritsi zenean lehengo zakur handi hura berriro azaldu zitzaion, oraingo honetan aurrez aurre jarriz. Berehala, gure Bedaio Bitarteko gizonak eskuan zeramatzan harriak zakurrari bota zizkion eta gauza harrigarria gertatu zen; harri haiek ez zuten soinurik atera gaueko isiltasun giro hartan, baina bai zakurra bapatean desgertzea lortu.

Zakurra ezkatutzearekin, nire berriemailea korrika etxe aldera abiatu zen eta baita sarrerako atea ondo itxita utzi ere. *Ni orduan trankil jarri nintzen*, esan zidan.

Ipuin honetan gauza bereziak ikus ditzakegu: zakur-astoa bi gizonetatik batek bakarrik ikusi zuen; zakurra bigarren aldiz ere, lehen ikusitakoaren

102. Bedaion, Josefa Antonia Agirrezabala Zabala, 66 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko urtarrilak 22.

aurrean parez pare azaldu zen; berari botatako harriek soinurik ez zuten atera eta zakurra azaldu bezala desagertu zen¹⁰³.

BESTE MUNDUKOA MEZA BATEN ESKE

Nire berriemailearen amaren aitona, tabernatik etxera zihoan gauetz. Baserritarraren izena Juan Bautista zen, eta aipatutako bidean zihoala, ilargitan zubi txiki baten inguruan eseri zen.

Honela zegoela gauza txuri bat azaldu zitzaion, honela esanez: Gurbille Txikiko Josefa Antoniari esateko, meza baten beharrean zegoela zerura joateko eta meza hau mesedez ateratzeko.

Biharamunean bertan meza atera zuten eta, mezako denbora guztian, Josefa Antoniak laino bat eduki zuen bere aurrean, eta elizatik irteterakoan, eliza barnean zegoen ur bedeinkatuontzian beste mundukoak eskua busti eta Josefa Antoniari eskaini zion esanez:

*Ni zerura noa eta zuretzako ere tokirik ez da faltako*¹⁰⁴.

OSTIRAL SANTU EGUNEAN ARKUMEA JATEAGATIK

Ostiral Santu arratsalde batean, Illarratzuko mikeleteak arkumea jaten ari ziren harrokeriaz.

Jaten ari zirela eguraldi ona zegoen, baina tximista argia sartu zitzaion eta beraietako mikelete bat erreta gelditu zen, bere lagunen aurrean.

Hildako gorpua itxura txarrean gelditu zen, mihia arrabete aterata.

Zumizketa baserriko bizitza bateko andre bat hildakoa jazten ibiltzen zen, eta emakume honek esan zuen hildako asko jantzi zituela, baina mikelete harekin asko ikaratu zela.

Illarratzun gorpu hau egon zen bitartean, iluntzean barra gorri bat zeruan egon zen, Lizartzako leize batetik, Illarratzun hildakoa zegoen lekuraino. Barra gorri hau gorputza eraman zutenean ezkutatu zen.

Baso-mutilek bazekiten zer gertatzen zen eta benetan beldurturik etxeratu ziren.

Hau nire berriemailearen amonaren garaietan gertatua da¹⁰⁵.

103. Bedaion, Frantzisko Jauregi Agirrezabala, 70 urte. *Bedaio Bitarte* baserria. 1992ko urtarrilak 19.

104. Bedaion, Ramona Otamendi Jauregi, 56 urte. *Gurbil Aundi* baserria. 1992ko maiatzak 17.

105. Bedaion, Juan Jauregi Garmendia, 58 urte. *Zumizketa* baserria. 1992ko maiatzak 1.

BESTE MUNDUKOAK (ETSAIAK) TXAKUR ZURI TANKERAN

Gasteizko gizon bat Ezkurrara etorri zen ikazkin batzuekin hitz egiteko asmoz. Gaua iritsi zen eta parranda egin nahi zuen herriko taberna batean.

Goiz aldera, bidean jartzera zihoala, tabernako lagunak galdetu zion ea ez al zuen beldurrik beste mundukoak agertzekoa. Eta gasteiztarrek erantzun zion ez zuela beste mundukoen beldurrik.

Abiatu zen bidean aurrera eta Santa Krutz ermitaren ondoko erreka-zulo batetik lau txakur zuri handi bapatean atera zitzaizkion eta aurrean jarri.

Gizona ikaratu eta itzuli egin zen. Sartu tabernara eta ahotik odola zeriola jarri zen. Gasteiztar hau handik gutxira hil zen¹⁰⁶.

JESUKRISTO ETXERIK ETXE

Jesukristo bere lagun batekin etxe batera joan zen eta hemen baso garbi-garbi batean ura eman zioten edateko.

Basoa eskuan hartu zuenean, Jesukristok hala esan zion eman zionari:

Jainkoak dizula senar txar. Han bertan, beste emakume bat dirua kontatu eta kontatu ari zen, gelditu gabe.

Jesukristo bere lagunarekin beste etxe batera heldu zen eta hemen baso zikin batean atera zioten ura. Eman zionari Jesukristok esan zion: *Jainkoak dizula senar on.*

Honek, beste etxeok aurretik aditzera eman ziolako, bazekien zer gertatuko zitzaion. Dirua kontatzen nola aritu zen gelditu ezinik, eta bi arrotzak etxetik atera zirenean diruak bukatu eta kontatzeari nola utzi behar izan zion, esanez: *Nik sekulako diru-pila zeukanat.*

Gauzak honela, baso zikina eskaini zuen andreak honela esan zuen: *Nik dirua kontatu aurretik pixa egin behar dut.*

Bi gizonak etxe hartan egon ziren bitartean, andrea pixa egiten gelditu gabe egon zen eta ez zuen dirurik ikusi. Etxe hartan ere, bestean bezala, bi andre aurkitzen ziren.

Azkeneko etxe honetatik irteterakoan, Jesukristori lagunak galdetu zion nola esan zion baso garbia emandakoari: *Jainkoak dizula senar txar*, eta besteari, baso zikina eman zionari: *Jainkoak dizula senar on.* Orduan Jesusek

106. Ezkurran, Fermin Apeztegia Telletxea, 62 urte. *Torrainea* baserria. 1992ko maiatzak 13.

honela erantzun zion: *Baso garbia emandako hark senar txarrarekin ere bizimodua aterako du; besteak, berriz, senar onarekin ere ez du bizimodu tajuzkorik aterako*¹⁰⁷.

LAMIA ON ETA LANGILEAK

Lamiak, nahiz eta ez jakin zer itxurakoak ziren, tximiniatik barrena sartzen ziren Bedaioko baserri batzuetako sukaldera. Hau beti gauez egiten zuten eta etxeakoak oheratu ondoren; eta sukaldea jaso gabe uzten bazuten, lamiek berak garbitu eta txukunduta uzten zuten hurrengo goizerako¹⁰⁸.

SUGARRA, BALERDI MENDITIK LIZARTZAKO LEIZERA

Bedaioko Zumizketa baserria sei bizitzakoa da eta hauetako batean nire berriemaile den Ramon Zubeldia bizi da.

Ramon Zubeldiak entzuna du Balerdi izeneko mendian Suga-zuloa aurkitzen dela eta bertan sugarraren bizilekua dagoela. Aditzea bazuen sugar hau bere izeneko bizilekutik Lizartzako leizetara joaten zela.

Gauzak honela, nire berriemailea behizain zebilen ilunabar batean sugarra gordelekutik irteten eta bere buru gainean pasa ondoren Lizartzako leizeta aldera ezkututzen ikusi zuen. Lizartzako leize hauek ez ziren Zubeldiaren bistan aurkitzen, baina sugarrak suzko barra bat utzi omen zuen atera zen lekutik ezkutatu arte. Suzko barra hau sugar-zulotik hasi zen ezkututzen edo itzaltzen¹⁰⁹.

SANSON ETA IRUÑARRI HARKAITZA

Erasungo Jazlarrea mendian aurkitzen da Iruñarri deritzon harria. Hiru bat metro ditu gorantz, laurogei bat zentimetro zabalean eta hogeita bost bat luzean. Diotenez, Sansonek bota omen zuen Iruñetik harri hau gaur egun Jazlarrea mendian aurkitzen den tokira¹¹⁰.

107. Bedaion, Ana Yarza Etxenike, 72 urte. *Elizetxe* baserria. 1992ko otsailak 16.

108. Bedaion, Ramon Zubeldia Jauregi, 77 urte. *Zumizketa* baserria. 1992ko apirilak 26.

109. Bedaion, Ramon Zubeldia Jauregi, 77 urte. *Zumizketa* baserria. 1992ko apirilak 26.

110. Ezkurran, Migel Antonio Mariezkurrena Telletxea, 90 urte. *Kastenea etxea*. 1992ko ekainak 14.

SANSONEN HANKA-ZULOAK

Sanson Leitzako herrira etorri omen zen balanka botatzeko proba egitera, baina leitzarrek ez zioten bere nahia betetzen utzi. Hori ikusirik, Sanson Berueteko mendi batera joan zen, Artxulo deritzonera. Mendi honetan harkaitz batera igo zen balanka botatzeko eta bertatik Saldiasko mendi bateraino bota zuen balanka, eta hori lortzeko egindako indarrarekin bi hankazulo utzi zituen harkaitzean. Horregatik harkaitzari Sansonen hanka-zuloak deitzen zaio¹¹¹.

MATEO TXISTU AMETSETAN IKUSI

Gauza asko esan eta idatzi izan da Mateo Txistuz, baina inor gutxik ikusi izan du ametsetan. Ez da ahaztu behar amets egitea bizi izateko beste moduetako bat dela.

Nire berriemaileak honela ikusi zuen Mateo Txistu bere ametsetan. Bere baserriko atarira iritsi zen, bi txakurren atzetik, eskopeta eskuetan zuela. Etxaurreko estalpean txakurrek sartu-irten bat egin zuten, bidegurutze bateraino aurrera jarraituz. Han, txakurrak erbiak nondik alde egin zuen erabaki ezinik ibili ziren.

Mateo Txistu gizaseme handi samarra zen, buru-hutsik zihoan, panazko galtza eta polaina labur batzuekin.

Hemen bukatu zen nire berriemailearen ametsa. Mateo Txistu hau oinak lurrean zituela ikusi zuen, ez airean¹¹².

GOROLDIOA ETA ETXEKO ESERLEKUEK BAKARRIK EZ ZEKITEN HITZ EGITEN


Goroldioa eta etxeke eserlekuak ziren hitz egiten ez zekiten bakarrak, beste gauza guztiek eta animaliek bai baitzekiten mintzatzen.

Hauek denak goroldioari eta etxeke eserlekuari hizketan irakatsi nahian hasi ziren, baina irakatsi beharrean, denei ahaztu zitzairen hitz egiten¹¹³.

111. Ezkurran, Lazaro Gastiarena Telletxea, 82 urte. *Garaikoetxea* borda. 1992ko ekainak 14.

112. Bedaion, Ramon Zubeldia Jauregi, 77 urte. *Zumizketa* baserria. 1992ko apirilak 26.

113. Ezkurran, Lazaro Gastiarena Telletxea, 82 urte. *Garaikoetxea* baserria. 1992ko maiatzak 13.



BESTE MUNDUKOA MEZA ATERATZEKO ESKATZEN

Nire berriemailearen amonaren ahizpa haurra zela bere izeba eta ama-ponteko zenari hildakoa azaldu zitzaion, gauez eta ohean zegoela. Zerura sartzeko meza baten beharrean zegoela adieraziz azaldu zitzaion. Baina Amezketak Galartza baserrian urtebetez zerbitzatzen egon ondoren meza atera behar ziola esan zion, hau da, baserri horretan irabazitako diruarekin. Honek erakusten digu, alde batetik, andreak ez zeukala dirurik eta, bestetik, ordaintzeko bide jakin bat erabili beharra zeukala.

Horrela, bada, andreak urtebete neskame pasa zuen Galartza baserrian eta hildakoaren nahia betetzeko meza atera zuen. Meza horretara joan ziren guztiei elizako sarreran hildakoak ur bedeinkatua ematen zien, eta aipaturiko emakumeak hildako hura meza-denbora guztian aurrean eduki zuen. Eliza uztean, berriz ere guztiei ur bedeinkatua eskainiz agurtu zituen. Baina emakumeari, agur berezi bat eginez, hala esan zion: *Ni orain zerura noa eta zuretzat ere ez da zerurik faltako; baina ez erabili harrokeria handirik*¹¹⁴.

BESTE MUNDUKOA ETA MUTIL KOSKORRA

Mutil koskor batek bere etxekoei esaten zien beste munduko bat agertzen zitzaiola. Hori entzunik, aita beste mundukoa ikusten zuen semearen atzetik abiatu zen. *Langan orain pasatu da, Bidean aurrera samar doa*, eta abar mutil koskorak esanez eliza bateraino heldu ziren. Nire berriemailearen ustez, Zumarragako elizara, hain zuzen. Hemen, hildakoak painelu bat eskatu zion mutil koskorrari eta hura hartzean bost atzamarrez beste hainbeste erre-gune egin zizkion.

Elizan hildakoaren omenez meza atera zuten eta beste mundukoak hala esan zion mutikoari: *Zuretzat ez da zerurik faltako*.

Handik urte batzuetara, mutil koskor hura gizondu zenean –nire berriemailea haren alaba ezagutzera iritsi zen– Santa Lutzia egunez, Zumarragatik Matximentako Sagarranondo izeneko bere baserrira itzultzean Izaspi mendian, Zumarragako partean amildu eta hil egin zen. Heriotza aurkitu zuen leku horretan gurutzea jarri zioten oroigarritzat¹¹⁵.

ARDIEK HITZ EGITEN ZUTEN GARAI

Artzain batek ataka ireki eta artaldea belardi batean sartu zuen, baina ardiek ez zuten belarririk jaten *Aurrean goxo, aurrean goxo* esanez aurrerago joaten ziren, eta egun hartan belarririk jan gabe goseak geratu ziren.

114. Amezketan, Ignazio Ulazia Artano, 80 urte. *Loiola* baserria. 1992ko maiatzak 30.

115. Matximentan, Juan Gurrutxaga Aranburu, 70 urte. *Maixukua* etxea. 1992ko ekainak 14.

Hurrengo egunean artzainak ataka berriz ireki eta artaldea belardi berean sartu zuen; oraingoan, ordea, ardiak *bertan goxo, bertan goxo* esanez, belarra jaten hasi ziren¹¹⁶.

BIGA LAPURTUA ETA AZTIA

Nire berriemailearen aitonak, Inazio Zubeldia Zubeldia zenak, Bedaioko Elizetxe baserrian zeukan bizilekua. Baserri horretan biga bat zeukaten eta gau batean lapurtu egin zieten.

Lapurreta hau zela eta nork ostu ote zien jakin nahian Donostiako azti batengana jo zuen gertatuaren berri emanez. Aztiak baserritarrari entzun ondoren, honela esan zion:

Goizeko ordu bietan Ugarteko lau-bidegurutzetan pasatu dute biga lapurtua, adarrak gora begira ditu eta zuri-beltza da.

Aztiak xehetasun guztiak asmatu zituen, baina lapurra nor zen ez zuen esan¹¹⁷.

116. Leitzan, Luis Baraibar Ezkurdia, 57 urte. *Luisen* borda. 1992ko martxoak 3.

117. Bedaion, Juan Zubeldia Zubeldia, 78 urte. *Elizetxe* baserria. 1992ko maiatzak 10.